**Herriko bestak**Arizkun, Erratzu, Doneztebe,  
Saldias, Almandoz, Senpere**LESAKA → 22**San Juan bezperarako  
ekitaldi ugari prest**ITUREN → 30**Trinitate Eguna igande  
honetan izanen da**LEITZALDEA → 36**Pediatria euskalduna  
izan dadin 171 eskaera**SARA → 44**Xareta Eguna igandean  
ospatuko dute

800dukado

Emakumeen Munduko Lehen Mendi  
Maratoia Sunbillañ hasi eta akituko da → 46**TXERTOAK**

Umeen bizitzan eragina duten  
gauzetan gurasoek partehartze  
aktiboagoa izatea gomendatzen  
dute osasun arloko  
profesionalek

ERREPORTAJEA → 4-5

ELKARRIZKETA → 3

## Udalek banketxeekin duten zorra %8,4 murriztu zen iaz Ekonomia eta Ogasun Ministerioak dioenez

Ez da Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Ezkurra, Goizueta, Saldias Urroz eta Zubietako Udalen kasua, herri horietako kontuek ez baitute zenbaki gorririk. Gainerakoetan, or-

dea, zor biziaren konpurua murriztu egin da 2013an. Kopuru absolutuetan herririk handienak dute zorrik handiena baina biztanleko/zorra begiratuta, alde handiak daude. → 10

**KIROLAK → 49**

Sokatiran Nafarroako  
Lauko Txapelketan  
**Amaiurrek** irabazi du  
gizonezkoen 300  
kiloko kategorian ere

**ZOKKETAK**

→ 56

**ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari**Txartela egiteko deitu  
948 635 458 telefonora



Ekainak 12, 13, 14 eta 15



**OKASIOKO IBILGAILUEN eta  
ERDIBERRIEN 2. FERIA**

Lekua: **Hiper Simply ARRAIOZ** **HIPERSIMPLY**  
Bardde - Bideare

**ANTZERKI EMANALDIA BERAN**

**PUBLIKOARI GORROTO**  
Huts teatroa  
Ander Lipus | Miren Tirapu | Inaki Ziarrusta

**Eguna:** ekainak 21, larunbata  
**Ordua:** 22:00  
**Tokia:** Berako Kultur Etxea  
**Sarrera:** 6€ | Lehenagotik Errekalden salgai  
Egun berean Kultur Etxean 21:30etik aitzinera





*Mens* grekoz hilerokoa da eta *pausi* bukatzea. Horixe da menopausia hitzak esan nahi duena, hilerokoaren bukaera. Emakumezkoek derrigorrean pasatu behar duten bizi-

tzako etapa bat da menopausia. Ugaltzeko gaitasuna galdu du eta aldaketa hormonal handiak izaten direneko garaia da. Batzuetan beste 45-55 urte bitartean izaten da eta

zazpi-hamar urtez iraun dezake. Bizitzako garai honi buruzko xehetasun gehiago Amaia Etxeberria leitzarrak eman dizkigu, Doneztebeko Osasun Zentroko erizainak.

Amaia ETXEBERRIA | Leitzako erizaina

# «Norbere burua maitatu eta bizitzaz disfrutatu behar da menopausian ere»

G. PIKABEA | LEITZA

**Menopausiarekin zein aldaketa nabaritzen dituen emakumeak gorputzean?**


Normalean, hasieran nabaritzen diren sintomak hauetako bat edo batzuk izan daitezke: sofokoak, izerdia botatzea, insomnioa, palpitazioak, suminkortasuna, urduritasuna, labilitate emozionala, gizentzeko joera... Gorputzean ematen diren aldaketak, berriz, azalekoak (elastikotasuna eta hezetasuna galtzea), ilea erortzea, genitalen atrofia, baginaren lehortasuna... izan daitezke. Luzaroan beste aldaketa batzuk ere eman daitezke, besteak beste, osteoporosia eta gaixotasun kardiobaskularrak izateko arriskua handitzea.

**Nola alda daitezke sintomak emakume batek bestera?**

Emakume batek izugarizko sofokoak izan ditzake eta beste batek, berriz, arinagoak. Beste sintomekin ere gauza bera pasa daiteke, emakume batek bestera modu desberdinean bizituz. Hortan hainbat faktorek dute zerikusia: pertsonalak, soziokulturalak...

**Zein fase dituen menopausiak?**

Perimenopausian lehenengo sintomak hasten dira eta hilerokoa irregularra izaten has daiteke, hormonien aldaketa dela eta. Azken hilerokotik urte bat pasatzen deneko



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia Etxeberria leitzarrak Doneztebeko Osasun Zentroan egiten du lan.

garaiari, berriz, menopausia deitzen zaio. Eta postmenopausian sintomak gutxitu egiten dira. Sofokoak arinagoak eta maiztasun gutxiagorekin izaten dira. Baina osteoporosia eta gaixotasun kardiobaskularrak izateko arriskua handitzen da. **Menopausia ez da gaixotasun bat, baina emakumeei fisikoki eta psikologikoki eragiten die.** Menopausian hormonien aldaketa handia izaten da. Estrogeno eta progesterona hormonien produkzioa asko jeisten da eta ondorioz, aipatutako sintoma fisikoak agertzen dira. Bizitzaren aro berriari gaudela kontuan hartuz, menopausia berari beste faktore batzuk gehi-

**HORMONA ALDAKETA**  
«Menopausian hormonien aldaketa handia izaten da. Estrogeno eta progesterona hormonien produkzioa asko jeisten da eta ondorioz, sintoma fisikoak agertzen dira. Emakumea emozionalki ere sentsibilitate bereziarekin egon daiteke».

**KANPOKO LAGUNTZA**  
«Menopausiak ez du zertan traumatikoa izan, norberaren izaeraren eta hartzen ditugun zainketa neurrien arabera da. Batzuetan kanpoko laguntza beharrezkoa izan daiteke».

tzen zaizkio: gaztetasuna galtzea, gorputzaren itxura aldatzea, bizitzaren eboluzioa eta bere kezak, gizartean dauden topikoak, gizartearen egoera eta gureganako eragina... Emakumea emozionalki ere sentsibilitate bereziarekin egon daiteke.

**Zer aholkatuko zenieke 40 urtetik gorako emakumeei menopausiaren etorrerari beldurrik ez izateko?**

Lehenengoa, etapa hau normaltasunez eta naturaltasunez bizitzeko. Bestalde, osasuntsu bizitzen ikastea, hau da, elikadurazainduz (kaltzioa duten elikagaiak jan, fruta eta barazki asko, alkohola eta kafe gutxi edan), kirola

eginez, tabakorik ez errez eta autoestimua onartuz edukiz.

**Behin menopausia etorritakoan, zein aholku emanen zenituzke?**

Sofokoak gutxitzeko erlajatzeko ikastea eta praktikatzeko ona da, inguruko tenperatura beroa ez izatea, arropa arinak erabiltzea, masailak ur hotzarekin freskatzeko, otordua oparoegiak ez izatea eta espezie gutxiak, edari oso beroak ez edatea, kirola egitea, fitoestrogenoak erabiltzea (soja, salvia...); azalaren lehortasuna zaintzea ere garrantzitsua da ur asko edanez eta egunero ongi hidratatuz; genitalen aldaketan ondorioz arazo sexualak izanez gero, mediku edo ginekologoari aipatu behar zaio. Elikadura garbia eta kirola eginez, arrisku kardiobaskularra prebenitzen da. Emozioei dagokienez, aldiz, gorputz aldaketak konplexurik gabe onartzea garrantzitsua da, lasaitasunez bizitzea, egin-kizunak aurretik antolatzea, harreman sozialak mantentzea, aisialdiko denboraz gozatzea... Laburbilduz, norberak bere burua maitatzea eta etapa honetan ere bizitzaz disfrutatzea da aholku nagusia. Biziaro honek ere bere alde polita dauka, esperientziak erakutsi diona praktikan jarri. Gorputza eta burua zainduz, gure nahi eta gogoetara errazago irits daitezke.



OSASUNA → TXERTOAK EZTABAIAN

# Seme-alabei txertoak bai ala ez?

Guraso batzuek argi dute haurrei txertoak paratuko dizkietela eta bertze batzuek garbi dute ezetz. Medikuen artean ere txertoen inguruko aldeko eta aurkako jarrerak daude

**Txertoen onurak frogatuak daudela diote batzuk eta beharrezkoak direla; bertze batzuek, aldiz, zantzaz egiten dute onura horiekin eta**

**gorputzaren baliabideak naturan dauden germenei aurre egiteko nahikoak direla diote. Batzuen eta bertzeen iritzia bildu ditugu.**

## G. PIKABEA

Eztabaida ez da oraingoa, baina bai oraindik ere mahai gainean dagoena. Haurrei aste gutti batzuekin paratzen diete lehen txertoa eta aunitzentzat ezinbertzekoak dira txerto guztiak. Ez, ordea, denentzako. Guraso eta medikuntzako profesional ugari zantzaz paratzen dute txertoak onerako diren ala ez. Amaia Goñi Doneztebeko Osasun Zentroko pediatriarentzat txertoak «onuragarriak» dira. Silvano Baztan sendagilea ez da iritzi berekoa. Bera ez da txertoen aldekoa.

## «TXERTOEN ONURAK FROGATUAK DAUDE»

Apirilaz geroztik Doneztebeko Osasun Zentroko pediatria da Amaia Goñi Yarnoz, eta bere irudiko, txertoen onurak frogatuak daude. Dena den, «txertoak bai ala ez planteatzea oso baikorra» iruditzen zaio: «guraso bezala haurrei egiten zaizkien edo haurrekin egiten diren gauza asko egin behar direlako egiten dira batzuetan. Gurasoek partehartze aktiboagoa izan behar dugu umeen bizitzan eragina duten gauzetan». Berak, ordea, pediatria den aldetik, txertoak gomendatzen ditu,

nahiz eta onartu «ez direla perfektuak, ez daukate la %100eko eraginkortasunik eta bigarren mailako efektuak badituztela». Txertoen ondorioen artean hauek aipatu dizkigu: «gehienetan sukarra, gaizki egotea eta txertoaren ingurua haunditzea dira. Guttitan agertzen diren bertze efektuak ere badituzte, erreakzio anafilaktikoak, adibidez». Baina, gaineratu digunez, «ez jartzeak ere ondorioak dauzka: infekzio eta gaixotasunen aurka babesik ez edukitzea».

Txertoak «gaixotasunik ez edukitzeko gorputzean sartzen diren substantziak» direla dio Goñik, «gorputzak gaixotasun horren aurka defentsak sor ditzan. Defentsa horiek edukita gaixotasuna sortzen duen germenei kontaktuan egonez gero, aurre egiten die, gaixotasun hori hartzeko aukerak guttitzen ditu».

Txerto kanpainaren gibelean bertzelako interesik ote dagoen galdetuta, botere mundua ez duela hainbertzerako ezagutzen kontatu digu, «laborategiek interesak dituzte, baina guri ere komeni zaigu txertoak edukitzea».

Txerto aunitz «onuragarriak» iruditzen zaizkio: «bizi baldintzak asko al-

datu dira gure inguruan, ez da hala munduko toki guztietan. Munduan zehar biztanleriaren mugikortasuna ere aunitz aldatu da eta txertatzen ditugun gaixotasunak munduan ez dira desagertu. Horrek gaixotasun horiekin kontaktuan egon gaitzkeela erran nahi du». Tetanosaren jarri du adibidez: «bizi baldintzen aldaketak eta biztanleriaren gehiengo txertatua egoteak ez gaitu gaixotasunetik babesten. Inmunitatea banakakoa da. Horregatik txertoak ez jartzea erabakitzen duten gurasoei guttienez tetanos txertoa jartzeko gomendatzen diet».

Txertoak ez jartzeko guraso batzuen erabakia «errespetatzen» du Goñik, «ni ez naiz inor erabaki hori juzgatzeko». Kontsultara doazen gurasoei bere esku dagoen informazio guztia eskaintzen omen die, eta Carlos Gonzalez pediatriaren *En defensa de las vacunas* liburua aholkatu. Hortik aitzinerakoak guraso bakoitzaren esku uzten ditu: «txertoen onura-arrisku horretan balantza zein aldera makurtzen den guraso bakoitzak erabaki behar du». Hori bai, ongi informatzearen garrantzia azpimarratu du, «era-



bakiarekin kontsekuente izan behar dugu, ondorioak kontuan hartuz eta onartuz».

## SEME-ALABAK «EZGAUZA BIHURTUKO DITUGU»

«Seme-alaben inguruan mugitzen den guztia txertatzeko kultura dugu eta hori izugarrizko atze-

rapena da». Halaxe adierazi digu Silvano Baztan Guindo sendagileak. Medikuntzan Doktorea da, ez da botiken aldekoa eta kontsultak hartzeaz gain, osasunaren garrantziari buruz hitzaldiak ematen ditu. Ekainaren 14an Arantzan izanen da txertotez solasteko.



**GUZTIA MEDIKALIZATUA**  
«Seme-alaben inguruan mugitzen den guztia txertatzen dugu eta hori izugarrizko atzerapena da»

Silvano BAZTAN GUINDO  
Sendagile iruindarra,  
Medikuntzan Doktorea



**TXERTOEN ONURA**  
«Txertoak ez jartzeak ere ondorioak dauzka: infekzio eta gaixotasunen aurka babesik ez izatea»

Amaia GOÑI YARNOZ  
Doneztebeko Osasun  
Zentroko pediatria



Txertoak: Ez da urrea ditzira duen oro  
Txertoen inguruko abako hitzaldia Arantzian

- HIZLARIA: Suro Baxtan Sendagilea
- NOIZ: Ekainaren 11an, 10:00etan, Eskulan.
- IZEN-EMATEA: parte hartzeko 6:45 OZ OZra delitu behar da ekainaren 12a baino lehen.
- ANTOLATZALEA: Hatz Egin haurrentzako arnas fisioterapia (Aitziber Almandoz)

bere burua ezagutzea eta kontziente bizitzea dira, norbere errealitatearekin jakitun izanda, desberdin eta libre izatera ausartuz eta horrela gozatuz...».

Txertoen errealitatearen inguruan «ezjakintasun handia» dagoela uste du eta hortaz, txertoak paratu ala ez zalantzan dauden gurasoei «ongi informatzeko» aholkatzen die, «iturri ofizialetik bakarrik datorrenarekin ez gelditzeko», eta «kontzienteki eta ardurarekin har dezatela erabakia, aukera dozein dela ere».

Gaur egun, egunero koa medikalizatu dagoela ere azpimarratu du Baztanek: «ingurura begiratzaren badugu, %100ean naturalak diren prozesuetan mediku edo mediku-farmaziaren elkarrekin bartzatzen ez dugu ikusten». Adibide gisa, erditzeak eta edozein oinaze, min edo katarroekin jendeak dituen erreazioak aipatu dizkigu.

Botiken erabilera ez garesti ohartzen iruditzen zaio: «edozein gauzagarik eta kontrako ondorioei eta botika bat baino gehiago hartzeak dituen interakzio fisiko-kimikoak kasurik egin gabe edo oinazea titikitzeko hori sortu duen arazoa ez duela konpontzen oharatu gabe, botiken erabilera partikularrera hezi da gizartea. Horrek ondorio kaltegarriak ditu, eta horietako batzuen susmoa baldin badago ere, larriagoak diren berte batzuk urteekin ikusiko dira».

Bere irudiko, txertoen bitartez seme-alabak «edozein gauzari aurre egin edo edozein gauzari babesteko ezgauza diren izaki bihurtuko ditugu. Zentzugabea da». Eta argi du: «txertoen politika gure ondorengoaren etorkizuna osasuntsua izateaz kezkatu beharrean, farmazia industriaren negozio oparoaz kezkatzen da». Eta txertoen kanpainak «familiei beldurra sortzeko eta gurasoen aukeratzeko askatasuna kiltzeko direla» uste du.

Mediku batzuek ezin hobeki frogatu dituzten txertoen onurak eta txertoekin gaixotasun aunitz gaitortu direla dio. Iruindarrarentzat, ordea, halako ideiak «txertoen kanpainari propaganda egiteko oinarri» dira, eta «faltukeriak». «Nire erakusketetan errealitate historikoa estatistika moduan ikus daiteke eta horrekin ezin dut ziurtatu Medikuntzak hain irrimo baieztatzen duena».

Baztanen arabera, haurrek berez dituzten

baliabideak nahikoak dira gaixotasunen aitzinean. «Inmunitatea gure organismoaren tresna automatikoa da eta mugitzen garen ingurunearen arabera, barne oreka mantentzen laguntzen digu». Eta txertorik gabe inmunitatea nola indartu? Eranztuna «sinplea» omen da: «ongi biziz, ahalik eta hobekien funtzionatu dugun moduan, norbere buruarekin autentikoak izanez, gure gorputzeko baliabideak ahalik eta hobekien erabiliz, gure burua ongi ezagutuz, ongi elikatuz, aire purua arnastuz, gure gorputzak pixka bat gehiago mugituz, harremana dugun pertsonak aukeratu eta maitatuz, atsegin ditugun lanak eginenez, aisialdirako denbora hartuz (bakarrik eta taldean)... Horixe da ez gaitortzeko modurik onena».

Behin gaixotutakoan, pertsonak sentitzen dituen sintomak eta bizituen dituen arazoak orekatzea beharrezkoa ikusten du: «gaixotasunak sendatzeko biderik egokiena nor-

## ZER DIOTE GURASOEN TXERTOEN INGURUAN?

Amaia GOIA ERRANDONEA | BERA



«Txertoen gibelean negozio handi bat dago eta Administrazioak txertoak paratzeko aholkatzeak ez dit bermatzen gure gorputzak behar dituenik. Txertoak dituzten ondorioak ikusteak zalantza sortzen dit gorputzerako onak ote diren. Nire ustez, gorputza gai da bizi osasungarria eramanez gero, gaixotasunei aurre egiteko»

Maidor PETIRENA GOROSTERRAZU | SUNBILLA



«Ez genuen planteatu ere egin alabei txertoak ez paratzea. Nire ustez, beharrezkoak dira, txertoek eritasun horiek ez hartzeko balio dutelako. Gainera txertoa ez da guretzat bakarrik ona, kanpotik datozenez ere ona da, ez kutsatzeko. Estatu mailan ematen diren txertoak beharrezkoak izanzen dira emateko aholkatzen badigute».

Igone GOIKOETXEA UZKUDUN | ARESO



«Umeen hobe beharrez eta prebentzioz, hiru seme-alabei Nafarroako Gobernuak aholkatzen dituen txertoak jarri dizkiegu. Nire ustez, beharrezkoak dira, eta gainera, gaur egun Medikuntza asko aurreratu da. Txertoak jarri ala ez, erabaki pertsonala da, baina ez eman eta gero gaixotasun hori hartzen badu haurrak...».

Araitx URRUTIKOETXEA VACAS | ARANTZA



«Txertoak ematen hasteko umeen adina ez zait egokia iruditzen, ezta inmundatze ere: masiboki txertatzea, era artifizialean gizarte osoa infektatzeko arriskuak sortaraz ditzakeela uste dut. Medikuntza batzuek diote txertoen osagai batzuk toxikoak direla, beste osagaiak hobetzen ari direla. Txerto programak inertzia burokratikoaz jokatzeko dute».





**Nire txanda**  
Fernando ANBUSTEGI

## Gure esku dago

**Z**ORAGARRIA izan da. Sinestezina? Ezinezkoa? Erokeria? Galdera horiek behin eta berriz egin izanen ditu bat baino gehiagok. 123 kilometro eskuz esku lotu? 50.000 lagun? 100.000 lagun? Durango eta Iruñea elkarri eskua emanik lotu? BAI. Beharbada hasmentan ameslariren baten *pajarada* bat izanen zen, berte ameslariren batekin elkartu izanen zen, gero berte batekin... eta honela, mantxo mantxo milaka ameslarik bat egin zuten. Azkenean sinestezina zirudiena, ezinezkoa, erokeria zirudiena egi bilakatu da eta amesten segitzeko balio izan du. Segi aitzinet! Ametsak behar baititu herri honek, Euskal Herriak ameslariak behar ditu. Azken finean, ametsak eta ameslariak elkartuz, elkarri eskua eman, ametsak egi bilakatzeko "arriskua" baitago. GURE ESKU DAGO! ZORIONAK BAZTAN BIDASOA! ZORIONAK EUSKAL HERRIA!!!

«Azkenean sinestezina zirudiena, ezinezkoa, erokeria zirudiena egi bilakatu da eta amesten segitzeko balio izan du»

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Zorrak zor, lepoa lodi

**F**utbol zelaian irabazi du *izarren* ligan aritzeko eskubidea; jokalariek gutti (bertzeekin konparatuz) baina hileru xuxen kobratzen dute; Ogasunarekin ez du zorrik; baina halere kapitala handitzea eskatzen diote, presidentea kartzelan, hazien-dari milioiak zor eta futbolariak kobratu gabe segitzen duten taldeekin parekatu dadin. Bertzela, maila galdu eta *haundi* batek hartuko du bere lekua.

## Nabarmentzekoak



Jose Joaquin ZIGANDA  
Omendua Oizen

Laxoa Eguna ospatu zuten maiatzaren 25ean eta Laxoa Elkartek omenaldia eskaini zion garaiezberdinetan hainbat txapel irabaziak dituen Oizko Gartzineako semeari.



Asier APEZETXEA  
Arantzako korrikalaria

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa irabazi zuten maiatzaren 31n, esprint estuan Ultzamaiko Mikel Beunzari irabazita. Ordubete, 13 minutu eta 24 segundotan osatu zuten ibilbidea.



Hasier LARRETXEA  
Hirugarren liburua

Bi poesia libururen ondoren, narrazioan murgildu da Arraiozko idazlea bere hirugarren literatur lanean: *Larremotzetik*, sentsibiltate mindu baten autobiografia dela adierazi du.

**Aztera begira → 2004-VI-17 / TTIPI-TTAPA 376 zk.**



## Amaiurko faisai, galeper eta untxi basa granjaren barrenean

Ehizturiendako faisai, galeper eta untxi basak hazten zituzten duela hamar urte Amaiurko granjan. 1994an sortua, hasieran inguruko herrietako bertze zenbait ehiztari elkarte, koadrilla eta Nafarroako Federazioa ere sartu ziren, baina hamar urte beranduago Baztango Ehizi Elkartek bakarrik erabiltzen zuten. Granja zaintzeaz arduratzen zen Eustakio Bazterrika iturendarrak bertako hegaztien berri eman zigun: «Arront bitxo aluak dira faisaiak, jaio orduko elkarri pika hasten dira». Galeperrei dagokienez, «jaio eta bi hilabeteren buruan hasten dira erruten, batzuetan lehenago ere bai, prozesu ikaragarri azkarra du».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbix Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Iruñe eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz

**Fundazioaren Presidente** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia  
**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

|                          |        |                             |        |                                      |     |
|--------------------------|--------|-----------------------------|--------|--------------------------------------|-----|
| Hego Euskal Herria ..... | 40€    | Europa .....                | 59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka ..... | 34€ |
| Ipar Euskal Herria ..... | 59,50€ | Amerika eta Australia ..... | 124€   | Leitza .....                         | 17€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

### Yolandarena (2)

Juainas PAUL ARZAK

Uy-uy-uy ama! Aurrekoan arinki bota nuena: “Yolanda, 2015ean berriro gure lehendakaria”, egia izateko bidean dela iduritzen zait. Ez naiz bro-metan ari. Hau serioa da. Ikaragarri serioa. Penagarria? Beste lau urte?

Eskatzen nuen “benetako politika” eta “batasun logi-koa” ez dakit lortuko den ala ez baino, hori gauzatu bi-tarte, dagoeneko, Yolik aholkatze berria, indartsua, mar-txan duelakoan nago. Ziur aski, irudi-aholkularitza ez da izanen. Ez du behar. Janzki, orrazketa eta aurpegia hagitz landuak, gogorrak ditu. Ez ditu aldatuko. Ongi doakio. Hori bai, aholkularitza politiko berria hartu due-la uste dut. Ez dakit...unibertitate inguruko baten bat, gauzak urrutitik begiratzeko ohitura duen horietakoren bat -dudan susmoa ez dut argitaratuko-. Zorrotza izan behar da. Hain zorrotza, ezen, UPN eraldatu nahi duela. Ho-rretarako, zinismo politikoa erakutsi eta abiarazi dio. Zer den? Zintzotasuna dagoenik ez sinistuta, ekintza okerre-z ez lotsatu eta etsaiei leporatu. La-burbildurik.

Adibide batzuk emanen ditut. Bat, Javier Morras jaunak arar-tekoari erantzun diona ingele-sa eta euskararen balorazioa-ri buruz. Ogasunaren lanpos-turako bigarrena ez baloratzea ez da diskriminazioa. Are ge-hiago, baloratzea eskatzen du-tenek, Carlos Garcia Adaneronen aburuz ere, euskara ez dakiten herritarrak diskriminatu nahi dituzte.

Bi. Nola esanen nuke? Gaizki ohituta gaude. Beti iru-ditzen zaigu goikoak aurka ditugula eta ezta egia. Irra-tiarena, esaterako. Ongi egin nahian, dudarik gabe, emi-sio banaketa okerrak izan dira, bata edo beste, baino oraingoan, gauzak argiturik, ez dezala inork pentsa ho-rrela, “sinmas”, Euskalerrria irratia emango diotenik. Ez aizu! Gobernu honi gauzak on-ongi egitea gustatze bai-tzaio.

Eta adurak, dagokionari. Hiru. Majo ematen du, polit itxura hartzen du hau-ta-hori-ta-hura egin behar dela esan, bortxatu, gobernuaren gutxiengo-a profitatuz, eta gero, diruarena neurtu behar denean, zorra den eta ez den kontua berari eskatu. Ez, ez. Yolik, beste behin, ar-gi eta garbi esan duen bezala, ardura eskatzen eta bor-txaz ezartzen dutenena da.

Luze jarraitu daiteke, horrela. Yolanda, agian, Diogenes berria dugu. Esaten dutenez, filosofoa ondo hornituta zegoen ziniko batek behar dituen tasun guztiez: lotsa-gabetasunaz, egoismo-kutsuaz, neurritasunaz eta irau-penaz. “Conde Rodeznorekin” bideratu zuena oroitzen? Gaur America 66 dugu. Bortxatzaileak izan zirela gor-de eta salbatzaileak gisa aurkeztu dute erregimentua. Barkamenak?

«Yolanda, agian, Diogenes berria dugu. Esaten dutenez, filosofoa ongi hornituta zegoen ziniko batek behar dituen tasun guztiez: lotsagabetasunaz, egoismo-kutsuaz, neurritasunaz eta iraupenaz»

### Euskararen Zubia

Jexux BULDAIN

Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren ar-tean dagoen tarteari, euskararen zubia dei-tu nahi izan diot. Asko dira euskara ikasten hasten direnak eta asko dira zubia zeharkatu ga-be, bertan geratzen direnak. Batzuei, lotsa ema-ten die gurekin hizketan egiteak. Beste batzuei, hizkuntza polita baino zaila iruditzen zaie eta bes-te batzuei, hizkuntzak erakarri egiten die baino ezi-nezko maitasun bat bezala, onartzen dute. Une batez, nire burua, testuinguru horretan kokatu na-hi izan dut. Euskaldun berri talde baten aurrean nago eta nire hitzaldiaren ondorioz, zubia zehar-katu edo ez, erabakia hartuko dute. Urduri nago, ez dakit ziur zer

esan, begiak itxi di-tut eta nire ba-rruari galderak egi-ten hasi naiz. Eus-kaldunak itxiak ga-rela esanez hasi naiz. Gure onda-rea erakusteko bel-dur gara, emozio-nalki sentiberak garelako eta ireki-tzen bagara, min gehiago hartzeko beldur garelako. Gure arbasoek, bi-zitza modu onene-an ulertzeko hel-buruarekin, urte asko pasa zuten sortu gabeko bi-deak eraikitzen. Bi-dean pasatu zi-tuzten esperientzi gogorren ondo-rioz, izaera propio bat eskuratu zuten eta gaur egun, euskararen bidez, transmisio hori gurean dago. Horrek, beste kulturetan ez dagoen esentzia propio bat ematen dugu. Gure buruari asko eskatzen diogun gizarte bat gara»

«Gure arbasoek, bizitza modu onenean ulertzeko helburuarekin, urte asko pasa zuten sortu gabeko bideak eraikitzen. Bidean pasatu zituzten esperientzi gogorren ondorioz, izaera propio bat eskuratu zuten eta gaur egun, euskararen bidez, transmisio hori gurean dago. Horrek, beste kulturetan ez dagoen esentzia propio bat ematen dugu. Gure buruari asko eskatzen diogun gizarte bat gara»

kararen bidez, transmisio hori gurean dago. Ho-rrek, beste kulturetan ez dagoen esentzia propio bat ematen digu. Gure buruari asko eskatzen dio-gun gizarte bat gara. Lana egiten dugu, gure iza-e-ra, gure argia, gure esentzia bizirik mantendu na-hi dugulako. Ahalegin eta lan guztiaren ordainsa-ria, aske bizitzen garen sentsazioarekin bizitzea da. Ondoren, galderen tartea ailegatu denean, es-tuasun berri baten aurrean aurkitu naiz. Nik esan bezala, euskaldun zaharrak eskuratuak omen di-tugu gure aurrekoen esentziak eta zubia igaro ezke-ro, euskaldun berrien kasuan ze egoeratan gera-tuko ginateke entzun dut. Gizarte batean barnera-tzen zarenean, bertan dagoen bizimoduarekin bat egiten duzu eta bat gehiago zara.

## Irakurleak mintzo


Herriz herri,  
bestaz besta

## TTIPI-TTAPA FUNDATZIOA

Hemen dugu uda eta udarekin batera, badatoz (ailegatu dira gaurgero) herrietako bestak ere. Aitzineko urteetan bezala, Ttipi-Ttapa bere orrietan bestetako programak eta argazkiak bildu nahi ditu, baita herrietako komertzio, ostatu eta zerbitzu ezberdinen eskaintza publizitatu. Hortaz, zuekin harremanean jarriko gara, baina zuek ere

jar zaitezke gurekin kontaktuan, ohiko telefono zenbaki edo e-posta helbideak erabiliz.

Horretaz gain, aitzineko urteetan bezala, bestetako kartela, programa edo esku-orriak diseinatu, inprimatu eta eramateaz arduratzen den zerbitzua eskaintzen dugu, prezio egokian eta diseinu aski erakargarriekin. Horretarako ere, jar zaitezte lehenbailehen gurekin harremanean, bestak gainean ditugu-eta. Ez utzi azken ordurako eta zuen herrietako besten berri zabaldu!



## Bota bertsoa

Oier AMIANO • Doinua: Izarren hautsa

## Gure esku dago!!

Ekainak 8 iristeko zain eta jadanik igaro. Egun horixe azkar a(ha)zteak ez da erreza izango. Gizon, andere, haur, zahar, gazte lagun kuadrila, senar-emazte, batuz hemengo ta hango. Elkartu ginen milaka jende, ezin eskatu gehiago. Ehun ta hoge kilometrotan lotuz Iruña-Durango. Eskuz osatuz gure bidea, eskuratzeko eskubidea, politikatik harago. Gure eskuetan dago.

Bidasoako herri guztiak eta Baztango bailara, 108 kilometro denok batera Itzara. Bakoitzak hartu gure lekua, ondokoari eman eskua. Ze katea, ze ilara! Hau ikusita hartu dezagun gaur pentsatzeko parada, herri honetan eskatzen dena hain arraroa al da ba? Erdiasteko guk nahi duguna, eraikitze etorkizuna, herritarren garaia da. Txikian haundiak gara.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPA eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**Tel.: **948 63 54 58**Faxa: **948 63 54 57**

## SANTESTEBAN TAILERRAK

Leitzako errep. • DONEZTEBE • T. 948 450 282 • F. 948 450 857 • doneztebe@red.renault.es

**7.600€**

**CLIO III AUTHENTIQUE**  
DCI 70 CV

2010 urtekoa - 46.900 km  
Aire girotua

**14.900€**

**MEGANE III GT STYLE**  
DCI 95 CV

2014ko apirilan matrikulatua  
Klimatizagailua, 6 marbxa,  
bluetooth integratua...

**10.900€**

**MEGANE III TOM-TOM**  
DCI 105 CV

2010 urtekoa - 42.000 km  
Nabigatzailea, aire girotua  
6 marbxa

**11.500€**

**SCENIC III EMOTION**  
DCI 95 CV

2011 urtekoa - 71.000 km  
Klimatizagailua, 6 marbxa,  
bluetooth integratua...

**11.950€**

**LAGUNA III EXPRESSION**  
TOM-TOM DCI 130 CV

2010 urtekoa - 70.000 km  
Nabigatzailea, klimatizagailua,  
6 marbxa...

**6.200€-852**

**KANGOO ITXIA**  
DCI 70 CV

2010 urtekoa - 56.000 km  
Aire girotua, ate lateralak...

**9.500€**

**KANGOO 5 PLAZAKOA**  
1.5 70 CV

2011 urtekoa - 38.000 km  
Aire girotua, ate lateralak...

## ETA GAINERA:

MEGANE III GT STYLE  
DCI 115 CV - km 0PEUGEOT PARTNER  
1.5 TD 75 CVMITSUBISHI MONTERO  
SPORT 2.5 TD 115 CV

SUZUKI SAMURAI 1.3

CITROEN PICASSO 2.0 HDCI



## 11 galdera labur



**Aimar OLAIZOLA**  
Goizuetako pilotaria  
ZAZPIKA 2014.06.01



**Hasier LARRETxea**  
Arraiozko idazlea  
GARA 2014.06.05

Bertan sortzen dugun giro-  
ak, San Juan suak eta ez-  
kil jotzeak...

## Ainhua ETXENIKE IRIARTE → Arizkungo gaztea

**PPSOE,  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!**  
Barria erosi taldea

**K<sup>2</sup>SAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Digital + banatzaile ofiziala

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA - T. 637 40 86 40 - 31780 8E9A andonisat@k2sat.com

**JAKONE - LOKOTECIA**  
948 630 786  
Altrazde 21 • BERA



**KARLOS ALZUGARAY D.O.**  
OSTEOPATA | FISIOTERAPEUTA | COL. 178

**TRATAMENDUAK:**

- Umeak jaio berriak
- Buruko minak
- Bihurdurak
- Trafiko istripuak
- Anginak
- Bizkarreko minak
- Kirol lesioak
- Masajeak

Itzea, 20 - behea BERA | T. 948 630 187 - 607 853 208

## GIZARTEA

EKONOMIA → ZOR PUBLIKOA ESPAINIAKO EKONOMIA ETA OGASUN MINISTERIOAREN DATUAK

# Banketxeekin dituzten zorrak %8,4 murriztu dituzte eskualdeko udalek

16,9 milioi euro  
zor dituzte  
eskualdeko  
17 udalek

DATUA

8

## TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPAren He-go Euskal Herriko eremuan dauden 25 udalerrietatik hamazazpik 16.896.000 euroko zorrekin itxi zuten 2013a. Hala ondoriozta daiteke Espainiako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Ministerioak berriki argitaratu dituen datuetatik. Emandako zenbakiak banketxeetan dauden zorrak dira.

## ZORRIK HAUNDIENA, HERRI HAUNDIENETAN

Txostenaren arabera, zor haundiena dutenak udalerririk haundienak dira. Baztan dago lehendabiziko postuan 6.672.000 euroko zorrarekin; ondotik Lesaka 4.471.000 eurekin; hirugarren Leitza 1.246.000 euroko zorrarekin eta laugarren Bera 1.135.000 euroko zor-

UDAL ZORRIK GABEAK Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Ezkurra, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubietak ez dute inongo zorrik banketxeekin.

petze mailarekin.

Bertze udal batzuek, ordea, ez zuten euro bakar bateko zorrik joan den urte bukaeran. Eta horixe da Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Ezkurra, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubietaren kasua.

Gainerako udalak milioi bat euroko zorraren azpitik daude.

## ZORPETZE BAXUAGOA

2012ko abenduaren 31n udalen zorpetze maila kontuan hartuz, 1.551.000 eurotan jeitsi da, hau da, 2012 bukaeran baino %8,4 tikiagoa zen 2013 hondarrean udalek zuten zo-

| HERRIA          | 2012ko ZOR BIZIA    | 2013ko ZOR BIZIA    |
|-----------------|---------------------|---------------------|
| ARANTZA         | 426.000 €           | 397.000 €           |
| ARANO           | 0 €                 | 0 €                 |
| ARESO           | 291.000 €           | 271.000 €           |
| BAZTAN          | 7.417.000 €         | 6.672.000 €         |
| BEINTZA-LABAIEN | 0 €                 | 0 €                 |
| BERA            | 1.262.000 €         | 1.135.000 €         |
| BERTIZARANA     | 175.000 €           | 73.000 €            |
| DONAMARIA       | 0 €                 | 0 €                 |
| DONEZTEBE       | 980.000 €           | 884.000 €           |
| ETXALAR         | 285.000 €           | 240.000 €           |
| ELGORRIAGA      | 11.000 €            | 26.000 €            |
| ERATSUN         | 15.000 €            | 9.000 €             |
| EZKURRA         | 0 €                 | 0 €                 |
| GOIZUETA        | 0 €                 | 0 €                 |
| IGANTZI         | 298.000 €           | 280.000 €           |
| ITUREN          | 111.000 €           | 102.000 €           |
| LEITZA          | 1.256.000 €         | 1.246.000 €         |
| LESAKA          | 4.747.000 €         | 4.471.000 €         |
| OIZ             | 71.000 €            | 64.000 €            |
| SALDIAS         | 0 €                 | 0 €                 |
| SUNBILLA        | 199.000 €           | 185.000 €           |
| URDAZUBI        | 296.000 €           | 247.000 €           |
| URROZ           | 0 €                 | 0 €                 |
| ZUBIETA         | 0 €                 | 0 €                 |
| ZUGARRAMURDI    | 607.000 €           | 594.000 €           |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>18.447.000 €</b> | <b>16.896.000 €</b> |

rra. Ia udal guztiek egin dute beheiti zorpetze mailan, Elgorriagak izan ezik. Zorrik gabe segitzen dutenak, berriz,

berdinak dira.

Bertzalde, Nafarroako datuak aintzat hartuz, guztira 274,2 milioi euroko zorra dute uda-

lek. Zor haundiena dutenak Iruñea (97,15 milioi euro), Tuteria (21,14 milioi euro) eta Castejon (8,79 milioi euro) dira.





# DONEZTEBEko

## BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 616 zbk  
2014.06.12

11



### Ekainaren 27a Ortzirala

20:00 Suziria botako da Herriko Etxetik.

Ondotik Karrika-dantza Corco txarangak eta txistulariek alaitua. Ohitura den bezala, ostatuetan eta elkarteetan zopak izanen dira afaltzeko.

00:00-03:30 Dantzaldia Jalisko Band taldearekin.



**Pepa's**  
ONGI PASA BESTAK!

948 450 953  
Makela, 18 DONEZTEBE  
pepekarra@telefonica.net

BERTAN EGINDAKO TROKAI  
ETA GORRITAK  
HALKORAKO  
produktuak  
Enkarguak  
Hartzen dira  
Kafetegia  
Gorritak  
Gorritak  
Tartar-ondoa  
Etorkizunak

**goldea**  
tallerra s.l.l.

tel./fax: 948 450 450  
e-mail: goldea@telefonica.net  
Pol. Industrial Auzoak, 1  
30100 Doneztebe (Nafarroa)

**Sampi Aragón, S.A.**  
MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Mekanika | Elektrizitatea | Txopu | Pintura

948 450 354 | DONEZTEBE  
sampilaragon@telefonica.net

**BERATARRA**  
ERAIKUNTZAK

J. I. MARITORENA LARRALDE  
670 489 337  
ONGI PASA BESTAK

Leizako b. 66 - 8. blokea 2C DONEZTEBE

**BELARRA JATETXEA**

Ameztia - DONEZTEBE - 948 450 308 - www.belarra-jatetxea.com

**Clinica Dental**  
IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

- Rx. Panoramikoa -
- Periodontzia -
- Odontopediatria -
- Kirurgia -
- Endodontzia -
- PADI -
- (Hauzen horietatik zainbako programa)
- Protesiak -
- Hortz-zuritzea -

**DONEZTEBE**  
Rosa Seminario, 19 esk.  
948 450 267

**LEITZA**  
Manuel Lasarte, 7esk.  
948 610 713

Egin zaitez  
**ttipi-ttapa** ren  
harpidedun

ttipi-ttapa

(0034) 948 63 54 58

**TITI BAR**  
DONEZTEBE

Ongi pasa bestak!

Amezitia, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271





**GONZALO FERNANDEZ  
LAMANA y A.T., S. CV.**  
Ingeniari tekniko Industrialak

- \* Bulego teknikoak: proiektuak, obra zuzendariak, etab...
- \* Instalazio elektrikoak
- \* Etxeko eta industriako elektrizitatea
- \* Enpresen mantentzeak, etab...

Elizagutela, 5 - DONEZTEBE - Tel/Fax: 948 450790

**ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI**

Loteria primitiva | Kinetak  
Pelukeroa

T. 948 450 081

Merkatarien karrika, 8 • DONEZTEBE



**GURE**  
Oindegia • Geroztogia • Hoitategia

ongi pasa bestak!

Parrokia, 19 • DONEZTEBE • T. 948 45 08 19

**EDERKI** tailerra



**CITROËN  
ZERBITZU OFIZIALA**

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

ongi pasa bestak!

Leitzako bidea - DONEZTEBE - 948 450 525




**DONEZTEBEKO UDALA**

Doneztebeko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue herritar  
eta bisitari guztiei



## Ekainaren 28a Larunbata -Udal Txikia-

09:00 Diana Corco txarangak girotua.

09:30 XXIV. Josetxo Ezkurra Memorialaren Pilota Txapelketako finalak.

11:00 Herriko Etxean ongietorria Txikien Udalari. Ondotik alkate txikiak eta zinegotziek suziria botako dute. Erraldoiak eta buruhaundiak, Txistularien Bandak lagunduta.

11:30 Meza, Txikien Udalbatza buru dela eta erraldoiek, buruhaundiek eta txistulariek lagunduta.

Ondotik euskal dantzak, dantzari txikien eta txistularien eskutik. Buruhaundiak eta zezen txikiak herriko karriketan barna ibiliko dira.

12:00 Gazte Burrunbarekin triki poteoa.

14:00 Gazte Burrunbaren eskutik bazkaria Intzakardin.

14:30 Txikien Udala aukeratzen parte hartu duten haur guztiendako bazkaria.

16:00-20:00 Haurrendako kart-ak eta puzgarriak Bearzana pilotalekuan eta tren turistikoa.

16:30 Gazte Burrunbaren X. urteurreneko ospakizuna.

17:00 Gazte Burrunbaren eskutik jokoak.

19:00 Gazte Burrunbaren eskutik poteo musikala.

20:00 Herriko Etxean, Txikien Udalbatzak bere agintaritza utziko du. Egun honen oroigarri gisa, Txikien Udalbatzako kideei diploma bana emanen zaie.

20:00-22:00 Dantzaldia Gaubela musika taldearekin.

22:15 Suzko zezena Bearzana frontoian.

01:00-04:00 Dantzaldia Gaubela musika taldearekin.



**Kimetz  
Belardenda**

DIETA PERTSONALIZATUA | APTERAPIA  
NATUROPATIA (gare biomagnetikoak,  
iridologia, quantum scio, terapia emozionala,  
famila konstelazioa...) | MASAJEAK  
(kiromasajes, reflexologia, terapeutikoa...)  
SHIATSU MASAJEA  
HIRUTASUN ESENTZIAK ...

[www.kimetzbelardenda.com](http://www.kimetzbelardenda.com)

Tel. 948 451 473  
Leitzako errep. 3 behea | 31740 | Donostia  
[kimetzbelardenda@hotmail.com](mailto:kimetzbelardenda@hotmail.com)

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

**facebook**

[www.facebook.com/tpi.ttapa](http://www.facebook.com/tpi.ttapa)  
[www.facebook.com/tpi.net](http://www.facebook.com/tpi.net)

**EGIN ZAITEZ GURE LAGUN**





# DONEZTEBEko

## BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 616 zbk  
2014.06.12

13



### EKAINAREN 29a IGANDEA - SAN PEDRO EGUNA-

- 09:00 Diana Corco txarangak girotua.
- 11:00 Meza Nagusia, Mendi Abesbatzak kantatua. Ondotik bandera dantza, Trapatan eta bertze dantzak Erreka dantza taldearen eta txistularien eskutik.
- 11:00 Erraldoiak eta buruhaundiak, Txistularien Bandak lagunduta.
- 13:30 Aperitiboa Herriko Etxean.
- 18:30 Kalejira Erreka dantza taldekoekin.
- 19:00 Erreka dantza taldearekin dantza tradizionalak Bearzanan.
- 20:00-22:00 Dantzaldia Laiotz taldearekin.
- 22:30 Su artifizialak.
- 00:30-03:30 Dantzaldia Laiotzekin.



### EKAINAREN 30a ASTELEHENA

- 09:00 Diana Corco txarangak girotua.
- 10:00 Mus Txapelketa.
- 11:00 Buruhaundiak eta zezen txikiak herrian barna.
- 11:30 Eskubaloí partidak kiroldegian.
- 14:00 Herri bazkaria.
- 17:00 Haurrendako jokoak Intzakardin, gurasoek antolatuta.
- 20:00-22:00 eta 00:30-03:30 Dantzaldia Oharkabe musika taldearekin.

**Arozena**  
ostatu - jafetxea

Gosariak  
bazkariak  
eta afariak

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 443  
Leitzako enrep., 84  
DONEZTEBE

**Mendiburu**  
aziendak • tratantea

Ongi pasa  
herriko bestak!

608 676 221  
948 450 084  
DONEZTEBE

**PATXI ZAMORANO**

- Barnizatuak eta lokatuak kabinon
- Etxebizitzak eta Lokalak
- Fatxadak

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 734 - 606 377 424 | Leitzako bidea - DONEZTEBE

**ARIN**  
ASEGURUA

Allianz

Parokia, 21 | DONEZTEBE | T. 948 450 266 - F. 948 450 617  
Eztegara, 26 | BERA | T. 948 625 259 - F. 948 625 264  
amedo.india@allianzmed.es

HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA ERRETEGIA

**Amezitia**

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 028 DONEZTEBE [www.ameztia.com](http://www.ameztia.com)

Ongi pasa bestak!!

**Mailposta Buzoneos**  
inprimategia • publizitate banaketak  
[www.mailpostabuzoneos.com](http://www.mailpostabuzoneos.com)

Inprimitu edo banatu behar duzun  
guztia preziorik onenean!

Tel. 686 74 77 13  
amaia@mailpostabuzoneos.com  
Altzagoreia Etxea • 31793 NARBORTE



**ONGI PASA BESTAKI!!**

Piater konbinatuak  
Bokadilloak  
Razioak  
**SASOIKO BARAZKIETAN ESPEZIALIZATUAK**

**Herriko**  
ostatua

Santa Luzia Plaza, 5 • DONEZTEBE • T 948 456 373

**CTV** ALBAITARITZA  
ZENTRO  
TEKNIKOA

**ONGI PASA BESTAKI**  
Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE  
T. 948 450 591 • M. 659 884 374  
www.veterinariastiz.com

**ESKAINTZAK**  
2014 udaberri-udako eskaintzak

**299€**  
**199€**  
**299€**

**BANATZAILEA**  
**José Luis San Miguel**  
DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711



**Pedro M<sup>a</sup> BAÑARES** | Arkupeak Elkarteko lehendakaria

## «Herriko bestak asko aldatu dira, ez dira lehengo Doneztebeko bestak»

Arkupeak Jubilatuen Elkarteko lehendakaria, Mendi abesbatzako abeslaria, Doneztebeko bake-epailea, Erreka Kirol Elkartearen sorreran parte hartu eta gerora sei urtez elkarteko lehendakari izan zena... Ez zen geldirik egoteko jaio Pedro M<sup>a</sup> Bañares eta bere harat honatak dira lekuko. Berak ere hala aitortu du: «**nire bizitzan denetarik dago, gauza askotan sartua nago eta egon naiz**». 25 urtez Nafarroako Kutxan aritu zen lanean eta aurretik beste lekuetan: «**Lesakako Laminazioetan, Baskonia Bankuan, eta 1978ko abuztuaren 1ean Nafarroako Aurrezki Kutxan hasi nintzen. Azken urteetan bertan aritu nintzen merkataritza kudeatzaile bezala, 53 urte bete arte**». 2003ko abenduaren 31n hartu zuen erretiroa eta onartu digunez, «**aurrejubilazioa gusto haundiarekin hartu nuen, azkeneko urteak presioz beterikoak izan baitziren**». Geroztik, «**lasaitasunez**» bizi ditu egunak, baina ez egonean: «**goizean ordu bat eta erdiko ibilaldia egin, egunkaria irakurri, Interneten ibili, marraztu, bizikletan ibili, libururen bat irakurri, partituraren bat errepasatu...**» horiek egitea atsegin du eta eta gainera, «**etxekoan-dreak agindutakoa egiteko ere denbora**» gelditzen zaiola erran digu.

Gaur egun, ordea, Arkupeak-eko lehendakaria denez, bere gauzetarako «**denbora gutti**» gelditzen zaio, egunero 08:30etik 13:00etara elkartearen egoitzan egoten baita. Duela sei urte eskas sartu zen bazkide, eta lehendakari gisa 2011ko uztaierako hasia zen. Balorazio «**oso positiboa**» egin digu: «**lan haundia egin dugu bazkideen datuak informatizatzeko, ordainketak helbideratzeko, ikastaro eta hitzaldien aukera zabaltzeko... Informatizatua egonda, lan hauek askoz ere errazagoak dira**». Aurreko zuzendaritza taldeari ere eskerrak eman nahi izan dizkio, «**lan hau eskuz egiten baitzuten**». Ilusioz hartu zuen kargua eta gogoz paratu dituzte proiektu berriak martxan: «**lehendik egiten ziren bidaiez gain, hitzaldi eta ikastaroen aukera zabaltu dugu eta oso harrera ona izan dute**». Datuak ere eman ditu: «**aurren lehen sei hilabeteetan 188 lagunek parte hartu dute eta poztekoa da. Are gehiago, kontuan hartuta iaz urte osoan 199 lagun izan zirela**». Aurtengo berrikuntzen artean batzuk aipatu dizkigu: «**bidaiei artean, Budapest, Praga eta Viena hiriak eta Argentina ditugu. Ikastaroen kasuan, La Caixarekin informatikako kurtsoak emateko eta tailerrak egiteko negoziatzen ari gara**».

**MALE-REKA** *atope!!*  
ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK

**KIROL-ARROPA LANEKO ARROPA KAMISETAK TXAPELAK PAÑULUAK BORDATUAK**

Nagusia, 1 • DONEZTEBE • 948 451 571 • 636 885 190 • male-reka@male-reka.com • Male-Reka



# DONEZTEBEko

## BESTAK 2014

tipi-ttapa | 616 zbk.  
2014.06.12

15



Pedro Mª Bañaresek hiru urte daramatza Arkupeak Elkartearen lehendakari gisa.

Betebeharrak alde batera utzita, herriko bestak gozatzeko hartuko ditu Bañaresek, «doneztebar peto-petoa» sentitzen delako: «**ttikitatik bizi izan ditugu eta niretako eta familiarendako hoberenak dira**». Sanpedroak, «**lasai**» pasatzen ditu, baina «**etxetik ateratzeko bertze arrazoi bat**» dira, eta gustuko du «**herria jendez nola betetzen den, bakoitzak bestak nola bizi dituen eta jendea bestetan nola mugitzen den**» ikustea: «**etxekoandretik hasita, lan gehien egitea tokatzen baitzaio, etxeko haurraren, hau ere zerbait ezberdina pasatzen ari dela konturatzen baita**». Egunez egun, San Pedro Eguna du maiteena: «**Meza Nagusian abesbatzarekin kantatzera joaten naiz eta Gora Doneztebe**

**«San Pedro Egune  
Meza Nagusian Mendi  
Abesbatzaren Gora  
Doneztebe kantarekin  
oilo ipurdia jartzen zait»**

**kantarekin oilo ipurdia jartzen zait, familiakoekin bazkaria eta orokorrean, Udalak egun horretarako antolatzen dituen ekintzak**» gogoko ditu. Gainera, bake-epailea izanda Udalbatzarekin izaten da eguneko ekitaldietan, makila eskuan. Ekainaren 30ean, San Martzial Egunean, aldiz, ez da Donezteben izaten, «**Irurera joaten naiz, andrearen familia han bizi baita**». Honderreko eguna kenduta, adierazi digunez, «**bestetako gainontzeko ekintzetara joaten saiatzen naiz**».

Denboran gibelera eginez, herriko bestak «**asko**» aldatu direla dio, «**ez dira lehengo bestak**. Lehen Bearzana plaza betea egoten zen, jendeak gelditu gabe dantzatzen zuen Gasteizko Mundijaz orkestrarekin eta gaur egun, dantzalekua aldatu dute. Su artifizialak espiral itxurakoak ziren eta gaur egungoak ez dute zerikusirik. Jendeak Laminazioetan besta eskatzen zuen Doneztebera hurbiltzeko eta belarrak eginak egon behar izaten zuten sanpedroetarako; orain, ia ez dira lehortzen uzten ere. Inguruko herrietako jendearendako ere, Sanpedroak sakratuak ziren, baina hori aldatu egin da». Bertzalde, aurtengo egitaraua ez duela ezagutzen aitortu arren, azken urteotako bestak «**errepikakorrak**» iruditzen zaizkio, baina «**suposatzen dut egoera ekonomikoak eragina izan duela**». Edozein moduz, denaren gainetik ez du zalantzarik: «**argi eta garbi, besta onak dira**».

Herriarrei zerbait errateko ere aprobetxatu nahi izan du tarteak: «**Donezteben eta Donezteberen alde lanean diharduten gisa guztietako erakundeei eskerrak eman nahiko nizkieke (kirola, kultura, komertzioak...), Doneztebek asko ematen digu eta guk gure ahalmen eta borodante guztia erabili behar dugu Doneztebe herri indartsu, dotore eta eroso bat bihurtzeko. Dituen gabeziak aztertu eta hauek indartu behar ditugu, eta gehienbat dagoeneko baditugun alderdi onak bultzatu, ez dira eta gutti**». Mezua bidalita, hauxe baino ez du gaineratu nahi izan: «**ongi pasa bestak! Gora San Pedro eta gora Doneztebe!**».

Herriarrei zerbait errateko ere aprobetxatu nahi izan du tarteak: «**Donezteben eta Donezteberen alde lanean diharduten gisa guztietako erakundeei eskerrak eman nahiko nizkieke (kirola, kultura, komertzioak...), Doneztebek asko ematen digu eta guk gure ahalmen eta borodante guztia erabili behar dugu Doneztebe herri indartsu, dotore eta eroso bat bihurtzeko. Dituen gabeziak aztertu eta hauek indartu behar ditugu, eta gehienbat dagoeneko baditugun alderdi onak bultzatu, ez dira eta gutti**». Mezua bidalita, hauxe baino ez du gaineratu nahi izan: «**ongi pasa bestak! Gora San Pedro eta gora Doneztebe!**».

**Juantxo San Miguel**  
Iturgintza • Kalefakzioa  
gasa  
T. 948 450 886 • 626 112 415  
Elizagibela, 2 • 31748 DONEZTEBE

616 513 497  
ESKABAZIOAK  
**ESKABAZIO eta  
GARRAIO LANAK**  
T/F. 948 451 389  
Ezpelura, 1 • DONEZTEBE  
pittieskabazioak@hotmail.com  
www.pittieskabazioak.com

**MARIA  
MILAGROS  
ELGEZUA  
ABOHATUA**  
LANTZEHARRI  
PARTIDULARIA  
C/DE LA FERIA, 20 - 1  
48100 ELIZONDIO  
Tel eta Fax: 948 432 976  
Hugaberrera 482 435 829  
muelge@netmail.com

**MARTIN-IBARRA**  
Forja artistikoa • Aroztegia  
forjamartin@baslanbidatsoa.com  
M. 669 068 622  
T. 948 393 280 • F. 948 393 279  
Oteiza auzoa, 4 • 31740 DONEZTEBE

**Mendaur Motor**  
Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333  
Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura  
ONGI PASA BESTAK!



ordua eskatu

**MAITE** itzazpindegia

Solarium-a

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourges Etorbidea, 4  
☎ 948 451 780 - DONEZTEBE

**ZERGALAN** 

aholkularitza

Zuen negozioen paper guztietaz  
arduratuko gara:  
kontabilitatea, zergak, langileak,

**www.zergalan.es**

*ongi goso bestak!*

Eliza kalea, 22 - 31740 DONEZTEBE (NA)  
Tel. 948 450 395 - Faxa. 948 451 304

 **Doneztebe autoeskola**

**A1 - A - B - BTP - C1**  
**C eta E** karnetak  
ateratzen ahal dira  
"35 orduko CAP ikastaroak"

**BESTA ONAK PASA!**

☎ 948 451 929

Leitzako errepidea, 2 behea - DONEZTEBE

 **MIKEL MUTUBERRIA**  
zurgindegia

*Zurgin lanak orokorrean*

**ONGI PASA BESTAK!**

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE  
Tel. 669 939 057  
mutuberriazurgindegia@hotmail.es

 **Angie**  
ENGLISH ACADEMY

- Itzulpen lanak
- University of Cambridge azterketara aurkezteko prestakuntza
- Eskola-laguntza
- 2014/2015 kurtsoarako matrikulazio epela zabalik, plaza mugatuak

**20 URTE BAINO GEHIAGO MAILERREKAN**

*Ongi goso bestak!*

Elizagibela, 7 behea - 31740 DONEZTEBE  
T. 626 908 076 - angieacademy@gmail.com



Erreka DANTZA TALDEA | Doneztebeko dantzariak

## «Taldeak badu etorkizuna, guk segitzeko asmoa dugu eta ondotik ere dantzari parrasta dator»

Musikaren erritmoan arin dantzatzan dute 14 neskek. Txikitatik dabilta dantzan, baina duela 5 urte sortu zuten egungo dantza taldea «**ordura arte, taldeak adinka banatuta zeuden, baina jendea dantza taldea uzten joan zen. Batzuk jarraitzeko gogoz geundenez, elkartu eta irakasle berriein hasi ginen lanean**». Maria eta Mikel Azpiroz leitzarrak dituzte gidari eta zenbaitetan, irakasleak beraiek ere emanaldietan parte hartzen dutela aipatu digute. Talde honen ondotik «**bertze gazte talde handi bat badugu, eta horietako zaharrenak tarteka gurekin entseatzera etortzen dira, poliki-poliki taldean sartzen joateko**». Beraien taldeaz gain, beste 4 dantzari talde daude, bakoitza 20 bat dantzari inguruz osatutakoa, horregatik «**dantza taldeak etorkizuna baduela**» uste dute, «**guk segitzeko asmoa dugu eta ondotik ere dantzari parrasta dator**. Azkenean, afizio bat da hau eta ilusio pixka bat baldin baduzu, handik edo hemendik ateratzen duzu tarteren bat».



ARGAZKIA: ERREKA K.E

Besten aitzinetik, ekainaren 14an eskainiko dute emanaldia Erreka Dantza Taldekoek.

Urte hauetan hamaika emanaldi eskaini dituzte eta tartean pasadizo xelebreren ere izan dute, «**presaka ibiltzeagatik saioen batean jantziekin inprobisazio tikiren bat egi-tea tokatu zaigu**» diote irriz. Karrikara irten aurretik, entseatu beharra izaten dute «**normalean astean behin gelditzen gara, eta emanaldiak hurbiltzean gehiagotan**. Urteko saiorik potenteena San Pedroetakoa izaten da, eta horregatik pare bat hilabete lehenago, astean bitan gelditzen saiatzen gara, pare bat orduko entseguak egiteko». Gazteak izanik bestazaleak dira eta herriko besten inguruan galdetuta diote «**besta herrikoia direla oso, bazkari eta afariz hornituak, tarte atsegina pasatu nahi izanez gero, egunez zein gauaz, aproposak**». Dantzariak hutsik egin ezin duten hitzordua dute datozen egunetan. «**San Pedro egunean, goizean, Trapatan dantza egiten dugu, aurreten laugarren urtez eta arratsaldean berriz emanaldia eskaintzen dugu**». Horregatik, «**aurreko egunean beti ahal den heinean behintzat txintxo portatzea tokatzen zaigu**».

 **OLAZAR**  
aroztegia S.L.

*ongi goso bestak!*

Aparan Ind, 1  
948 456 183  
Mugikorra:  
649 139 365  
DONEZTEBE

- Aroztegi metalikoak
- Aluminio aroztegia
- Zerrailgintza
- Ate baskulatzailak
- Itxiera metalikoak
- Estructura metalikoak
- Galdaragintza
- Ate automatikoak



# DONEZTEBEko

## BESTAK 2014

tipi-tapa | 616 zbk.  
2014.06.12

17

### Besta aurretik emanaldi berezia

Ekainaren 14an, gaueko 10:00etatik aitzinera ere izanen duzue dantza taldeaz gozatzeko aukera. Dantza saioa antolatu dute kiroldegian eta erran digute emanaldi «berezia» izanen dela. Horren arrazoa honakoa, «**orain artekoak beti egunez egin izan ditugu eta oraingoan zerbait desberdina egin nahi genuen**». Ikusleei eskainiko dizkieten dantzak ere «**modernoagoak izanen dira, dantza tradizionaleko pausoetan oinarrituta**». Beraien taldea osatzen duten 14 dantzariak eta irakasleek hartuko dute parte eta «**Leitza-**

«**Emanaldi berezia izanen da, gauez. Dantza modernoagoak eskainiko ditugu, dantza tradiziolaneko pausoetan oinarrituta**»

**ko mutil dantzarien kolaborazioa ere izanen dugu, baita gaztetxoek taldeko beste zortzi dantzariena ere**».

Aspaldixkoan zuten burutan mota honetako emanaldiren bat egitea eta azkenean aukera izanen dute «**idea honekin bueltaka genbiltzan, baina honelako zerbait ordu asko, lan handia eta ekonomikoki ere asko suposatzen du. Dena ongi atera dadin, gauzak ongi lotu behar dira**». Horregatik, «**lagundu gaituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, beraiek gabe**

**ezinezkoa izanen zelako antolatzen ari garen ekitaldia egitea**». Zailtasun batzuk ere badituztela aitortu digute «**dantzak prestatu ahal izateko, jendeak libre egon behar du entseguetara etortzeko, eta guztiok ikasten edo lanean gabiltza**» baina, «**aurtengo konpromezua hartua genuen, eta aitzinera doa asmoa**».

Sarrera dohainik izanen da eta «**adin guztietako jendea biltzea**» da asmoa. Ekitaldiaren ondotik sari batzuen zozketa ere egitekoa dute, eta horretarako boletoak jarriko dituzte salgai herrian ohiko tokietan eta egunean berean polikiroldegian. Sarien artean tablet bat, Elgorriagako Hilarion jatetxean bi pertsonentzat bazkaria, Donamariako Herriko Ostatuan bi pertsonendako bazkaria eta Elgorriagako bainuetxean 4 zirkuitu termal zozkatuko dituzte.

Beraz, gozatu bikoitza hartzeko aukera duzue aurreko Errekako dantzariekin!



ARGAZKIAK: ERREKA K.E.

ONGI PASA BESTAK

**Anamary**  
CONADENGA

T. 948 451 756 M.689 800 257 • Intzukardi, 8 • DONEZTEBE

**Juanotena**  
zurgindegia

Ateak • Eskailerak • Leihak • Teilatutak  
Zolak • Kontraleihak • Armairu enpatatutak

[www.juanotena.com](http://www.juanotena.com)

Leitza Erep. 35 • DONEZTEBE • T. 948 45 02 11

**zrb.net**  
informatika

Santa Luzia Plaza, 2  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 451 752  
M. 609 418 097  
info@zarbo.net  
[www.zarbo.net](http://www.zarbo.net)

**Arrate Estetika Zentroa**  
948450286

- Puzteko eta puzteko gailuak eta puzteko gailuak.
- Botoi (puzteko gailuak) eta
- Botoi (puzteko gailuak) eta
- Botoi (puzteko gailuak) eta
- Botoi (puzteko gailuak) eta
- Botoi (puzteko gailuak) eta

**MerKaopari**  
www.merkaopari.es

Made in Euskal Herria

Etor zaitez ikustera  
Euskal Herrian egindako artikulu berrak

Hauak  
eta  
askoz gehiago

MerKaopari denda

**Julia**

Gozotegia . Kafetegia

Ogi, tartak, pastelak, bonboiak, izozkiak...  
ENKARGUAK HARTZEN DIRA

TERRAZA Wi-Fi gunea

Kale Nagusia, 10 DONEZTEBE Tel. 948 451 471





**ongi pasa bestak!**

**BAZTANGOIZA**  
TAILERAK

Auto, furgoneta, 4x4,  
kamioi eta nekazaritzako  
makineriaren konponketa,  
mantenimendua, mekanika,  
elekttrizitatea eta pneumatikoen salmenta.

Ordoki ind. 31713 Arizkun  
BAZTAN (NA)  
Tel. i Fax: 948 453 403  
baztangoiza@yahoo.es

*Ongi pasa bestak!!!*

**BIXTA-EDER**  
restaurante-jatexea

OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA  
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA

948 453 358 - 690 335 327  
Azpikueta errep. - ARIZKUN  
bixtaeder@hotmail.com  
www.bixtaeder.es

**ongi pasa bestak!**

**TASKA**  
**DOLAETXEA**

T. 948 453 002 | ARIZKUN

Gasnategi berria

**Gorramendi**

Bastaneko gasnag  
SAT Gorramendi - Oribai Arizko  
Arizkun - Tel. 948 453 308  
salmendi@gorramendi.eu  
www.gorramendi.eu

Dastatu,  
sentitu,  
gozatu!

Bilatu gidatzaileak  
683 504 736  
www.gorramendi.eu

# ARIZKUNgo

## BESTAK 2014



### EKAINAREN 20a ORTZIRALA

- 12:00 Dianak, txupinazoa eta gazteen luntxa.
- 13:00 Txopo goratzea.
- 14:00 Gazteen bazkaria.
- 18:00 Leire Onsalorekin kantaldia.
- 21:30 Baztan Zopak Joxe Angelek alaiturik.
- 23:30 Kontzertuak: Barniz por la nariz, Sofokaos eta Brigrada improduktiva.
- 02:00 Dantzaldia Aierrik taldearekin.
- 05:00 Xinger jatea.

### EKAINAREN 21a LARUNBATA -HAURREN EGUNA-

- 10:00 Dianak.
- 10:30 Haurrendako puzgarriak eta tren txu-txua.
- 11:00 Ginkana (9 urtetik aurrerako haurrendako).
- 14:00 Haurrendako bazkaria eta koadrilen bazkaria.
- 18:00 Txokolatada.
- 18:30 Triki-bertsu poteoa ostatzuz ostatu.
- 20:00 Dantzaldia Laiotz taldearekin.
- 22:00 Mutildantzak eta gaita.
- 00:00 Dantzaldia Laiotz taldearekin.
- 05:00 Ziztor jatea.



ARGAZKIA: WWW.BAZTANHARANA.COM

### EKAINAREN 22a IGANDEA

- 10:00 Dianak.
- 11:00 Zaldi ikuskizuna Lamierritan.
- 12:00 Gazteen frontenis finala.
- 16:30 Break dance.
- 17:30 Bertso-pilota saioa.
- 18:30 Tortila lehiaketa.
- 20:00 Dantzaldia Salaberri akordeoilariarekin.
- 22:00 Mutildantzak eta gaita. Gero, guatekea soziedadean.
- 05:00 Gasna jatea.

### EKAINAREN 23a ASTELEHENA -SAN JOAN BEZPERA-

- 10:00 Dianak.
- 12:00 Mus ineztura.
- 14:00 Zikiri jatea akordeoilariarekin.
- Ilunabarrean San Joan suak eta ez-kil jotzea.
- 22:00 Mutildantzak eta gaita.
- 00:00 Dantzaldia Beñat akordeoilariarekin.
- 05:00 Xingar jatea.



ARGAZKIA: WWW.BAZTANHARANA.COM

### EKAINAREN 24a ASTEARTEA -SAN JOAN EGUNA-

- 10:00 Dianak.
- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Mutildantzak, ondorengo herriko luntxa.
- 17:30 Mexikanak
- 20:00 Dantzaldia Beñat akordeoilariarekin.
- 22:00 Mutildantzak eta gaita.
- 00:00 Txopo botatzea eta gaixua ni.



# ERRATZUKO BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 616 zbk  
2014.06.12

19

## EKAINAREN 27a ORTZIALA -HAURREN EGUNA-

- 10:00 Argi soinuak.
- 10:00-14.00 Haur jokoak: puzgarriak, ludoteka, kart-ak...
- 12:00 Ezkil jotzea eta txupinazoa.
- 13:00 Fanfarrea kilikiak alaiturik.
- 14:30 Haurren eta gurasoen bazkaria Kastonean.
- 17:00 Izpegiko igoera: 5. herri bizikleta martxa. Ondotik hurrendako txokolatada eta sari banaketa Erratzuko fanfarronak alaiturik.
- 20:00 Errepresaliatuen aldeko kontzentrazioa plazan. Ondotik, poteoa Erratzuko fanfarronak alaiturik.
- 21:30 Baztanzopak Kastonean (txartelak salgai Kastonean eta Albantzenean).
- 00:00 Kontzertuak plazan: Skalopeak, Ufestuek eta Odolkiak ordainetan.



## EKAINAREN 28a LARUNBATA -PILOTAREN EGUNA-

- 10:00 Argi soinuak.
- 11:00 Frontenis partidak Etxelebert pilotalekuan.
- 12:30 Fanfarrea kilikiak alaiturik.
- 14:00 Herritarren arteko Piki-nika.
- 17:30 Pilota partidak Etxelebert pilotalekuan.  
Eskuz binaka: ASIER OLAIZOLA - IÑAKI OTXANDORENA.  
SEBASTIAN GONZALEZ - MIKEL GOÑI.  
Lau t'erdian: MIKEL OLAZABAL - JUANTXO KOKA.
- 20:00 Dantzaldia Dantzadi taldeak alaiturik.
- 21:30 Mutildantzak, gaita eta larrain dantza.
- 00:00 Dantzaldia Dantzadi taldearen eskutik.

## EKAINAREN 29a IGANDEA -SAN PEDRO EGUNA-

- 10:00 Argi soinuak.
- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Mutildantzak eta luntxa herriko plazan.
- 17:00 Herritarren arteko jinkana.
- 20:00 Mariatxiak Herriko Plazan, Mariachi Tecalitlan.
- 21:30 Mutildantzak, gaita eta Larrain Dantza.
- 22:30 Su artifizialak.
- 23:00 Kontzertua Zubi Puntan.
- 00:00 Dantzaldia Hauspolariek taldearen eskutik.

## EKAINAREN 30a

### ASTELEHENA -ZIKIRO EGUNA-

- 10:00 Argi soinuak.
- 11:00 Pilota partidak Gorostapolon.
- 12:00 Bertso poteoa Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariekin.
- 14:30 Zikiro jatea musikak alaiturik.
- 20:00 Dantzaldia Salaberriekin.
- 22:30 Dantzaldia Iparlan, Panpi Portugalekin.
- 00:00 Dantzaldia Salaberriekin.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

**Semería Alemana S.L.**  
Especialitatea:  
Haritz, Izeia, Douglas,  
Laminatuak eta KVH  
**ONGI PASA BESTAK!**  
Frantziako errep. 2-A 31714 ERRATZU  
T. 00(34) 948 453 173 - F. 00(34) 948 453 082  
info@semeriaaleman.com - www.semeriaaleman.com

**IPARLA**  
OSTATUA  
Egunero gosariak  
PANPI PORTUGAL ekainaren 30ean 22:30ean

**ZUBI JAUS**  
PUNTA ATUOA  
ERRATZU USTARRA

**ALTXUKO**  
janaridenda **DENDA**  
ONGI PASA BESTAK  
948 453 471

**BAZTANDARRA**  
KOOPERATIBA  
Baserritarren zerbitzurat  
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201  
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

**URTXULUTEGI**  
ZURGINDEGIA  
ateak | leihoak | eskailerak | sukaldeak | armairuak  
Zurgin lanak orokorrean  
PVC eta ALUMINIOA  
www.carpinteriaurtxulutegi.es  
Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 475  
carpinteriaurtxulutegi@hotmail.es





K O M U N A K

T. 948 450 925 | M. 677 525 292 • 677 525 324  
Ameztia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

S U K A L D E A K



Etxetresnak | Pareta-armairuak  
Sukalde eta bainugelako altzariak

## KONTXA Gasolindegia

- \* ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA  
( A Gasoleoa, B Gasoleoa, SP 95, Adblue)
- \* TABAKO SALMENTA
- \* TELEFONO MUGIKORREN BIRKARGA
- \* LABETIKAN MOMENTUAN ATERIKO PIZZAK

- \* DUTXA ZERBITZUA
- \* TELEFONOA ETA FAXA
- \* APARKALEKUA
- \* KUTXAZAIN AUTOMATIKOA



### SUPERMERKATUKO PREZIOAK DITUEN DENDA

ESKATU DOHAINIK GURE DESKONTU TXARTELA, A GASOLEO ETA SP 95 HARTZEKO PREZIO EZIN HOBEAN !

## GASOILA ETXERA



- \* ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA
- \* ETXERA BEREHALA ERANATEN DUGU
- \* PREZIO LEHIAKORRA

**TASKA**  
*Simón*

### TABERNA - KAFETEGIA

- \* MENUAK
- \* PLATER KONBINATUAK
- \* OGI TARTEKOAK
- \* PINTXOAK
- ERAMATEKO JANARIAK-



ESKEINTZEN DUGU

TEL. 948 450 912

CTRA NA - 121A KM 48,8 DONEZTEBE TEL.948 450 272 / 948 450 787



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 13TIK 15ERA

# Altzateko bestak asteburuan

Ortziraleko zozketarekin hasi eta igandeko funky eta jazz emanaldiarekin bukatuko dira

## TTIPI-TTAPA

Altzateko bestak ospatuko dituzte ekainaren 13tik 15era, egitarau zabal honekin:

## ORTZIRALA, EKAINAK 13

- 19:30: Zozketaren sariak banatu (2 pertsonentzat balnearioa, 2 pertsonentzat afaria Zalainen, 2 pertsonentzat gaua Urdai-baien eta saski eder bat Altzateko dendan eskutik).
- 20:00: Txupinazoa Altzateko Plazan. Ondotik karrikabuelta txistulari, erraldoi eta buruhandiekin.
- 22:00: suzko zezena.
- 23:00: kontzertuak: Behatxe Roja (Ska, Hernani), Kulto Kultibo (Irun) eta DJ Maia (Etxalar).

## LARUNBATA, EKAINAK 14

- 12:00: euskal dantzak.
- 13:00: karrikabuelta txistulari, erraldoi eta buruhandiekin.

- 14:00: Zikiro jatea (Txartelak 15 eurotan salgai Xuga eta Purienan).
- 18:00: Batukada.
- 22:00: suzko zezena.
- 23:00: Kontzertuak: Kalera (Lesaka-Bera), Dama (Doneztebe) eta Deskode Nafar Koast Tour.

## IGANDEA, EKAINAK 15 HAURREN EGUNA

- 10:00: Plater tiraldia.
- 10:00: haurren pilota partidak Altzateko frontoian.
- 10:30: MGT Eguna.
- 11:00: Meza Nagusia.
- 12:00: Entzierro ttiki.
- 13:00: Karrikabuelta txistulari, erraldoi eta buruhandiekin.
- 15:30: Haurrentzako jokuak Altzateko Plazan.
- 18:00: funky emanaldia.
- 19:00: Jazz emanaldia.

## Txistularien Eguna

Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurreneko ekitaldien baitan Txistularien Eguna ospatuko da ekainaren 15ean. Igande goizeko 11etatik aitzinera kalejira egingen dute Altzaten barna. 12:30ean erraldoiekin batera ibiliko dira txistulariak eta



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Guztiok elkartearen aldeko jaialdi arrakastatsua

Abesbatzaren ekimenez, Guztiok Guraso Elkartearen aldeko elkartasun jaialdia egin zen maiatzaren 31n. Euriaren beldur, Altzateko plazan egin ordez Altzateko frontoian egin zen musika eta dantza uztartu zituen emanaldia. Jendetza bildu zen bertara, elkartasuna adierazi bidenabarkoan ikuskizun bikainaz gozatzeko. Guztiok Elkartea aurkezpena egin zuen eta Gure Txokoako dantzariak, Irungo Carlos Zapiain areto dantza eskolako kideak, Abesbatzak, Musika Bandak, Pettik eta Mugaldekoak taldeko Raul Garcia eta Beñardo Goietxek eta Igantzi, Doneztebe, Lesaka eta Berako jubilatuen abesbatzek parte hartu zuten.

akabatzeko Itzea aitzinean joko dute.

## Berako Oihuarako lanak

Urteroko moduan, besten programarekin batera, Berako Oihua al-dizkaria banatuko da etxeetan. Bertan artikulak idaztera animatu dute Kultur Batzordetik. Hauek aurkezteko

epea ekainaren 27a bitarte izanen da.

Lanak nahi den gai eta luzerakoak izaten ahal dira, eta irudi edo argazkiz lagunduak joaten ahal dira. Lanak, posta elektronikoz [kultura@berakoudala.net](mailto:kultura@berakoudala.net) helbidera bidaltzen ahal dira edo, bertzenaz, zuzenean Kultur etxera eraman.



## Ba al zenekien

Toki Ona institutuko Bizikidetza Programa aurkeztu zuela Aintzane Gascon irakasleak maiatzaren 31n Iruñean Nafarroako Kontseiluak antolatutako XV. jardunaldietan

## FLASH

### Emakumeak Kurdistango gerrillan

Ekainaren 19an, *Mujeres del monte Ararat* dokumentala eskainiko da 19:30ean Beralandetan eta gero maingurua egingen da.

### Emakumea eta gizona euskal dantzetan

Oier Araolaza antropologo eta dantzariak so-lasaldia eskainiko du ekainaren 20an, 20:00etan Beralandetan.

### Antzerkia

Huts Teatro taldeak *Publikoari gorroto* antzez-lana eskainiko du ekainaren 21ean, 22:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 6 euro.

**SMAZIZIOR** edariak  
948 631 557  
Zubi, 3 ALKAIAGA  
maziziorsenper@gmail.com

**EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA**

**BILTEGIA 948 630 102**  
**FAUSTINO 647 810 152**  
Bidasoa, 76 - oren 21-22  
31780 BERA

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

## LESAKA

OSPAKIZUNAK → EUSKARA BATZORDEAREN ESKUTIK

# San Juan bezperan hainbat ekitaldi prestatu dituzte

*Euskaraz bizi* goiburupean gurasoengan eragin nahi dute bereziki

Aitor AROTZENA

Bertze urteetan bezala aurren ere *Lesakan Euskaraz Bizi* eguna antolatzen ari da Euskara Batzordea, ekainaren 23an San Juan bezperarekin bat eginez. Helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izan ohi da eta horretarako urtero herritar multzo ezberdinei zuzentzen zaio mezua. Aurtengoari dagokionez Lesakako gurasoetan eragin nahi dute; izan ere, euskararen erabilera neurtzen dituzten kale neurketa ezberdinek, gainbeherazko norabidea erakutsi baitute herritar multzo honetan.

Horretarako gurasoengana zuzendu nahi izan dute, eta Guraso Elkarte bidez egitea erabaki dute.

Egitarrari dagokionez, muralak egin eta parke, ikastola, eskola inguruetan jarriko dituzte. Bortzirietako Ber-

tso eskolak saio antzetzua eskainiko du eta *Euskararen fruitu goxoak* jolasean aritzeko aukera izanen da, guraso batek eta haur batek osatutako bikotetan. Lehenagotik izena eman beharko da. Euskara Batzordearen ekitaldia eta manifestuaren irakurketaren ondorengo, sua piztuko da. Afari autogestionatua izanen da plaza inguruan eta dantzaldia.

## Musika Bandak Rock kontzertua eskainiko du

Urtero bezala, aurren ere Lesakako Musika Bandak kontzertu bat emanen du San Ferminak hasi baino egun batzuk lehenago. Aurren, ekainaren 20an izanen da, ortziral arratsko 10etan Eskol Ttikiko gibelaldeko aparkalekuan, RockBand izenburupean. Izan ere, Queen, Michael Jackson, Europe, AC/DC, Miguel Rios, Blues Brothers, Nino Bravo, Barricada, Elvis Presley, Abba edo La Oreja de Van Gogh taldeen bertsoak egingen dituzte.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

## Bidasoaldeko arte eta artisautza azoka arrakastatsua

*Gure artea gure artean* goiburupean Bidasoa aldeko arte eta artisautzaren lehen azoka egin da maiatzaren 31n, Bihotzkada Kolektiboak antolatuta. Eskulangileen lanak karrikaz karrika hedatu ziren eta artistenak berriz, Harriondoa Kultur Etxean eta Kolektiboko kideek margotu eta egokitutako konbentuan. Hainbat ekitaldi egin ziren egun osoan. Harriondoako erakusketa ekainaren 19ra bitarte egonen da zabalik. Ortzegun eta ortziraletan, 18:00etatik 21:00etara, larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

KIROLA → EKAINAREN 15EAN

## Lesakako XII. Mendi Itzuliak 32 eta 23 kilometroko ibilbideak izanen ditu aukeran

TTIPI-TTAPA

Lesakako Mendi Itzulia hamabigarren urtez antolatu du Beti Gazte elkarteak, Udaren laguntzaz. Ekainaren 15ean, igande goizeko 7:00etatik 7:30era abiatuko dira mendizaleak eta bi ibilbide izanen dituzte au-

keran. Laburrena, 23 kilometro luze eta 1.300 metro desnibela duena, plazatik abiatu eta Nabazen barna Agiñara igoko da, Domiko, Burnaiztegi, Pagolleta, Apittu eta Sastrinen barna, berriz ere plazan helmugaratzeko. Luzeena, 32 kilome-

tro luze eta 1.800 metro desnibela duenak, ibilbide beretsua izanen du, baina Apittutik Sastrinen barna jautsi beharrean, oraindik ere Unanue, Igantziko Kopara eta Frainera igo beharko dute mendizaleek, herrira jautsi aitzin.

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

Lesaka  
Berriztatze  
Martinez  
Jantzirik  
Pala Maki  
**kaltagorria**  
Beneke plaza 10 30770 Lesaka  
T. 948 627 514

**IRU BIDE**  
Enbeteia - Auzoa  
Berriztatze, 31 Lesaka  
Tel. 948 637 127

**KATUETXEA**  
OSTATUA  
Berriztatze, 31 Lesaka  
Tel. 948 637 127



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 13 ETA 15EAN

## Haurraren Eguna bi egunez ospatuko dute

### Irune eta Itsaso

Haurraren Eguna ekainaren 13 eta 15ean ospatuko dute eta egitarau zabala prestatu dute bi egunetarako.

Ortziralean 11:15ean eskolako atea irekiko dituzte. Ikasleek kontzertu tiki bat eskainiko dute eta ondoren lanak ikusteko aukera izanen da. Igandean 10:30ean berriz ere eskolako atea irekiko dira. 12:15ean plazan ipuin topaketa izanen da trikitilariak alaitua. Bertan, gela bakoitzeko ikasleek ipuin bat ozenki irakurriko dute eta parte hartzaile bakoitzari liburu bat emanen zaio oroigarri gisa. 13:30ean guraso elkarteak antolatutako bazkaria izanen da eta bazkalondoan udalaren eskutik ipuin kontalaria.

### Gasna feria

Ekainaren 1ean, Altxata elkarteak antolatutako XXII. gasna lehiaketa ospatu zen. 18 gasna aurkeztu ziren le-

hiaketara eta Lekarozko Kortariko Bordako Julen Arburuak irabazi zuen lehen saria (120 euro). Bigarren eta hirugarren sariak Arantzara joan ziren, Simonen bordara eta Seroren bordara.

Etxalarkoen artean berriz, lehenengo saria (50 euro) Ursuako Jorge Arizalek eskuratu zuen eta bigarrena (30 euro) Intxeko Josetxo Ariztegik. Honez gain, I. Goxo topaketa egin zen. 11 gasna tarta aurkeztu



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Gasna lehiaketako irabazlea, lehen bi herritarrak eta epaimahaikideak.

ziren eta guzien artean lote bat zozketatu zen. Hau Andutzeko Maite-xari tokatu zitzaion.

### Sute elkarteak

Ekainaren 14an goizeko 09:30ean izanen da estintoreen errebisioa kultur etxean. Urteko batzarra berriz, ekainaren 15ean egingen da goizeko 10:00etan kultur

etxean. Bertzalde, aldaketak egon dira juntan: lehendakaria Asier Maya da eta idazkaria Angela Irisarri. Sute kasuan sua itzaltzeko palak etxe hauetan egonen dira: Iturraldeko-borda (Larripil Sarriku), Tolareko-borda (Orizki), Goienetxegaraia (Luriztiederra), Zamudieneko-borda (Urri-tzokieta), Maxterneko-borda (Gorosurreta) eta

Arrineko-borda (Lakain-Apezborro).

### San Juan sua

Altxata elkarteak antolatuta, ekainaren 23an arratsean San Juan bezpera ospatuko da plazan. Herriar guztiei berendu-afariarekin plazara hurbiltzeko deia egiten diete, ilunabarreko 20:00ak aldean suaren ingurura bilduz.



ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

### Gure esku dago

Maiatzaren 24an 80 lagun inguru bildu ziren plazan "Gure Esku Dago" ekimeneko grabaketa egiteko. Minutu bateko grabazioa egin zuten eta dagoeneko interneten dago ikusgai.



ARGAZKIA: IZARO IRIBARREN

### Lehen jaunartzeak

Maiatzaren 25ean Aimar Aginagalde, Xuban Gas-tearena, Mikel Iturria, Eider Indaburu eta Naiara Otxotekok Lehen Jaunartzea egin zuten elizan.

José I. Gonzalez Enguita  
pinturak  
barrutik eta bitartekari  
tel. 666 235 466

Jar ezazu zure erakundearen osasuna APMren esku!  
Nafarroan 15 urteko esperientzia prebentzio-lanetan dugu gure alde!

- Lan-arriskuen prebentzioa
- Osasunaren zaintza
- Prestakuntza
- Errendimenduaren Kontsultoretza

Egoitza Nagusia: Iruña,  
Monasterio de Allos, 2  
948 26 4915  
apm@apmprevencion.com  
www.apmprevencion.com

*zalain*  
JATETxea, RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
www.zalainjatebisa.com

# IGANTZI

GIZARTEA → EKAINAREN 17AN, 20:00ETAN

## Hirigintza Planaren berri emateko bilera deitu du Udalak

Frontoia  
estaltzeko  
dagoen plana  
ere ikusi ahal  
izanen da  
bilera berean

berak alegazioak aurkeztu behar ditu eta. Plana moldatu liteke oraindik eta horretarako guztien laguntza behar da. Bileran frontoia estaltzeko dagoen planaz ere solastuko dute.

Joxean ORTEGA

Aurreko alean aipatu bezala Udalak Hirigintza Plana jendeari azaldu eta dituen zalantzak argitzeko bilera bat deitu du, ekainaren 17an arratsaldeko 8tan Udaletxean. Bilera honetan Hirigintza Plana orokorrean azalduko dute: ideia orokorrak, aurreikuspenak, asmoak eta datozen urteetarako herriaren hazkundera nolakoa izanen den. Bilerara hurbiltzen direnek zalantzak eta proposamenak egin ahal izanen dituzte, partikularren arazoak moldatzeko ezin direla izan argi izaki, honetarako nor-

### Igerilekuko bonoak

Igerilekuen irekiera ekainaren 14an izanen da. Bonoak salgai daude eta hauek dira prezioak: uda osorako 40 euro ordaindu beharko dute 18 urtez goitiko herritarrek eta 65 kanpotarrek; 11 eta 18 urte artekoek 28 euro eta 43 euro eta 4-10 urte artekoek 18 eta 29 euro. Egun bateko sarrera 6 eurokoa izanen da 18tik goitikoentzat, 4 euro 11-18 urtekoentzat eta 3 euro 4-10 urtekoentzat. 15 lagunetik goitiko taldeek prezio bereziak izanen dituzte eta familia ugariak %20ko deskontua izanen dute.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

### Herri kirol taldearen kurtso bukaera Irrisarrin

Herri Kiroletako haurren taldeak Irrisarrin topaketa izan zuen ekainaren 1ean, eta haien arrimoan bertze haur eta guraso koadrila hurbildu zen, denen arteko bazkari eta egun pasa ederra eginaz. Ausartenak pendulua izeneko *erokerian* aritu ziren eta beren oihuak bailara osoan entzun genituen...

### Eskolako ikasleak auzolanean

Eskolako ikasleek ekainaren 19an auzolana egingen dute trenbidean dauden zikinkeriak bilduz, horrela poliki-poliki auzolanak zer diren ikasiz joanen dira eta bide batez, herriarentzat lantxo txikia egingen dute!!

### Frontenis txapelketa

Biltokik frontenis txapelketa antolatu du aurtengoan. Ekainaren 12an bukatuko da izen emateko epea (20 euro bikoteko) eta guttienez 6 bikote beharko dira txapelketa hasteko.

KIROLA → MAIATZAREN 31RA BITARTE

## Mendi bizikleta eskola lanean hasia da Irrisari Land-en

TTIPI-TTAPA

Mendi bizikletaren erabilera sustatu eta indartzeko asmoarekin, mendi bizikleta eskola lanean hasia da Irrisari Land Abentura Parkean. Estatu osoan, freeride eta enduro klaseak ematen dituen lehena da gainera. Hegoi Ado, Irrisari Landeko jardueren arduradunak aipatu duenez, «udan ikastaroak eta txapelketak egingen ditugu, baita Dirt Jump edo jauzi erakustaldiak ere. Uda ondotik Enduroko Nafarroako Openeko proba bat eta Dirt Jumpeko Espainiako Openeko bertze proba bat antolatu nahi ditugu, eta irailan eta urrian, mendi bizikleta eskolako kirola bezala sartu nahi dugu ikastetxetan». Bartzelona eta Madrilan gisa honetako eskola gehiago badaude ere, inguru honetako lehenbizikoa izanen da Igantzikoa.

**F. LANCHAS**  
Akutoladorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
jarzaila  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**elika**  
Dietetika eta elikadura  
**IXIAR ANDUEZA LANZ**  
Dietista-Nutrizionista  
Kolegiatu zenbakia NA221  
Iteza, 6 behea 31780 BERA  
948 631 283 - 645 708 512  
elika.bera@hotmail.com

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontraburuzko laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713



KIROLA → MENDI LASTERKETA

## Asier Apezetxeak Urdazubiko kontrabandisten lasterketa irabazi du

Imanol Lukanbio seigarren sailkatu da

**Nerea ALTZURI**

Asier Apezetxea lasterkalaria zoriondu beharrean gara. Joan den maiatzaren 31n, Urdazubiko bestetan errotua den Kontrabandisten Mendi Lasterketa egin zen. Ia 16 kilometro ditu probak eta aldi honetan, Asier Apezetxeak garaipena lortu zuen eta hala, 250 euro eta oroigarria jaso zituen. Bortz minutu geroxeago, Imanol Lukanbio ailegatu zen helmugara, seigarren postuan. Biek ala biek, sasoiari daude-lar erakutsi dute!

Kirol modalitate ezberdinetan zaletasun handia dago herrian eta tartean, mendi lasterketetan ere taldetxo bat ari da.

### Gazta sarituak

Kirolari onak ez ezik, gaz-

tagile onak ere baditugu herrian. Ekainaren 1ean, Etxalarko XXII. Gasna ferian, Simonenbordako Xalbador Madariaga eta Serorenbordako Margarita Madariagak bigarren eta hirugarren sariak lortu zituzten. Aita-alabak eskualdeko nahiz herriko gazta lehiaketetan sari bat baino gehiago hartu izan dituzte. Zorionak bada bie!

### Hitzaldia txertoen inguruan

Larunbat honetan, ekainak 14, 11:00etan Baskulan, Aitziber Almandoz fisioterapeutak txertoen inguruan bertzeikus-puntu bat emateko solasaldia antolatu du. 0-2 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendua da, maiz txertoen inguruan izan ditzakegun zalantzak argitzeko asmoz. Aitziberrekin batera, gaian aront jauntzia den Silvano Baztan Iruñeko medikuak ere parte hartuko



ARGAZKIAK: G. PIKABEA

### Herritarrek Gure Esku Dago ekimenarekin bat eginez

Joan den maiatzaren 25ean, 80 bat lagun bildu ziren argazkia atera eta erabakitze eskubidearen aldeko ekimenarekin bat eginez. Ekainaren 8ko giza-katean parte hartzeko, berriz, bi autobus ateratzekoak ziren.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

### Eliza garbitzeko ateraldia

Joan den maiatzaren 22an, herritarrek eta igantziarrek eliza garbitzeko sari gisa ateraldia egin zuten. Ederki pasatu zuten eguna.

du eta norbaitek joateko asmorik badu Aitziberri jakinarazi behar dio ekainaren 12a baino lehen, 699 012012 telefonora deituta.

Aitziberrek urte saila daramazki fisioterapeuta alorrean lanean, bere-

ziki haurren arnasketa fisioterapia lantzen. Iaz, erraterako, Lovexair fundazioak antolatutako arnasketa fisioterapiaren inguruko lehiaketa irabazi zuen, *Arnasketa fisioterapia hezkuntzan* izeneko lanarekin.

### Akatsak zuzentzen

Aitzineko alean, mendi itzulari buruzko kronikaren hasieran *Duela berderatzi urte...* idatzi nuen. Ez da zuzena, duela hamar urte izan baitzen lehenbiziko mendi itzulia. Barkatu eragozpenak!

**ATERPE**  
Alteagorren jabetza enpresa  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net

**IMANOL ITURRIA**  
ZURGINA  
Enpresa eta partikular  
T. 661 577 137  
E-posta: imaiturria@hotmail.com  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
lagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
T. 948 625 474

**EDARIAK**  
**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com

# SUNBILLA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BUKAERA

## Ateraldiz ateraldi dabilta eskolako ikasleak

Bertizen eta Hondarribian izan dira

**Maidar PETRIRENA**

Eskolako haurrek irteera ezberdinak egin dituzte ikasturte bukaera hurbiltzen ari delako.

Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoek egin zuten lehen irteera. Maiatzaren 8an Bertizera joan eta 9an egin zuten buelta egun ederak pasatu ondotik.

Maiatzaren 19 eta 20an, berriz, LHko 2. eta 3. mailakoen txanda izan zen. Hauek Hondarribiara joan ziren. Eguraldia lagun izan zuten eta hondartzan disfrutatzeko aukera izan zuten, baita igerileku estalian ere. Hagitz egun politak izan ziren.

Azkenak berriz, LHko 4. 5. eta 6. mailakoak izan ziren. Hauek aurrekoen plan berdina errepikatu zuten. Eguraldia ez zen hain ona izan baina hondartza eta igerilekuan ibiltzeko aukera izan zuten.

**Ulibeltzak elkartean junta berria**

Ulibeltzak Elkarteko ba-

tzar orokorra egin zuten maiatzaren 10ean eta junta ere aldatu zuten. Beraz, datozen bi urteetan hauek izanen dira Ulibeltzak elkarteko junta osatuko dutenak:

- Lehendakaria: Mikel Arrieta Gelbentzu
- Lehendakariordea: Josu Apeztegia Ibarra
- Idazkaria: Aritz Arriola Capdequi
- Diruzaina: Mikel Arretxea Lasaga
- Bokalak: Joseba Apeztegia Larroke, Leire Sanzberro Oharriz, Esteban Korta Gandarra, Pablo Maritxalar Etxenike

### Lizun gaztandegia Euskal Telebistan

Lizun Gaztandegiak bederatzigarren urtez Idiazabalaren Erregularitasun saria lortu zuen. Maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean, ETB1 eta ETB2an *Sustraia* programan agertu ziren. Zorionak!

### 800 Dukado bideoan

Irailaren 7an Sunbilla 800 Dukado Emakume Mendi Maratoia eginen da. Honetan kolaboratzaile lanetan Sunbilla Indar-tuz Turismo El-



### Ba al zenekien

Jalisko Band-ek maiatzaren 30, 31 eta ekainaren 1ean Arrasaten Mundumiran (Munduko Kulturen Festa) parte hartu zuela



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitiko argazkian, ttikienak Bertizen; beheitian, Lehen Hezkuntzakoak Hondarribian.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Sunbildarrek gogoz parte hartu zuten Malerreko Egunean

Maiatzaren 31n Donezteben ospatutako III. Malerreko Egunean herriko dantzariak parte hartzeko aukera izan zuten, urtero bezala. Hainbat dantza dantzatu zituzten, haur, koxkor eta helduek. Erakustaldi paregabea izan zen. Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako Leihotikan begira lehiaketan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoen artean bigarren saria Jon Mikel Gaztelumendi Jorajuria sunbildarrak irabazi zuen, *Baratxurin puntua* lanarekin. Mus Txapelketako finalean ere bi bikote joan ziren herritik, baina aurtengoan ez zuten suerte haundirik izan eta lehendabiziko partidaren kanpoan gelditu ziren. Hailere, zorionak egun eder honetan parte hartu zuten guztiei.

kartea (SUNBITE) ari da. Promoziorako bideokliparen grabaketa Porrotx, Marimotots eta korrikalari ospetsuekin egiteko aukera izan zen ekainaren 3an Sunbilla, Narbarten, Legasan, Donezteben eta Iturenen. Egun paregabea izan zen. Eskerrik asko bertaratu zireten guztiei eta nola ez egun eder hau prestatu duen Sunbiteri. Egun arras polita izan zen.



ARGAZKIA: JOKIN LIZEAGA

Porrotx eta Marimototsekin bideoan parte hartzeko aukera izan zuten herriko neska-mutikoek.



OSPAKIZUNAK → MAIATZEKO AZKEN ASTEA

# Ekitaldi ugarirekin burutu zen Kultur Astea

Guraso  
Elkarteak  
antolatua

**Martin BERTIZ**

Maiatzeko azkeneko astea kulturarendako gordeta zegoen eta halaxe izan zen.

Astelehenean bederatzietatik ordu bata arte foruzaingoak ekitaldia antolatu zuten, bertan zirkuito batzuk antolatu zituzten bizikletakin ibiltzeko eta haurtxoei segurtasun neurriak erakusten saiatu ziren.

Asteartean berriz zientziak eta gastronomiak izan zuten beren eguna. Bi orduetatik laurak arte haizea eta urarekin

esperimentuak egiten aritu ziren eta ondoren "chef txikiak" prestatutako pintxoak dastatzeko aukera izan zuten. Asteazkenean hamaiketarik eguerdira arte irratsaioa zegoen.

Ostegunean haurtxo txikiak Bertizera kanpaldira joan ziren eta bertan Ituren eta Legasako haurtxoekin elkartu ziren. Arratsaldean Eduardo Gil Bera idazleari elkarriketa egin zitzaion. Hiruetatik laurak arte egon zen irratsoaioan.

Amaitzeko ostiralean Bertizera ateraldia prestatua zegoen, baina eguraldi txarra zegoenez astelehenerako utzi zuten eta bazkari batekin amaiera eman



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Bertizen bazkaria izan zuten ttikiak, Kultur Astearen baitan.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

## Herrian ere 800 Dukado lasterketaren promozioa egin dute

Irailaren 7an egingen da inguru honetan emakumeei zuzendutako lehen mendi maratoia munduan, eta herriko neska-mutiko eta emakumeek ere parte hartu zuten Porrotx eta Marimototsekin batera ekainaren 3an grabatutako bideoan.

zitzaion aurtengo aste kulturalari. Esan beha-

rra dago egitarauko ekitaldiak herriko gura-

so elkarteak antolatuak izan direla.

LANA

LANGABEZIA → MAIATZEKO DATUAK ESKUALDEAN

# 1.279 lagun zeuden lanik gabe maiatz hondarrean

Apirilean baino  
63 guttiago

**TTIPI-TTAPA**

1.279 lagun zeuden Doneztebeko Enplegu

Bulegoan izen emanak maiatz hondarrean, apirilean baino 63 guttiago. Nafarroa osoan %3,13 jautsi da langabezia eta eskualdean oraindik gehiago, %4,69. Maiatzean 483 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 62 bakarrik mugagabeak.

**ADIN ETA SEKTORE  
GUZIETAN BEHEITI**

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goi-

tiko gizasemeen artean 584 lagun daude langabezian, apirilean baino 32 guttiago. Adin tarte horretako emakumeen artean 569 langabetu daude, apirilean baino 16 guttiago. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean ere 10 lagun guttiago daude langabezian, 72 langabetu, eta adin tarte horretako emakumeen artean ere apirilean baino 5 emakume guttiago daude lanik gabe, 54 emakume denera.

Zerbitzuen arloa jautsierarik nabarmenena izan duen sektorea izan da, 865etik 828 langabetura pasatuz, 37 guttiago. Industria arloan 6 langabetu guttiago daude, 221 denera. Eraikuntzan ere 11 langabetu guttiago daude, 130. Nekazaritzan ere sei lagun guttiago daude langabezian, 20 lagun, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 80 lagun daude langabezian, apirilean baino 3 guttiago.

# DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 14AN

## Doneztebe Futbol Taldearen Eguna ospatuko dute larunbatean

Entrenatzaile, jokalaria eta jarraitzaileak afari batean bilduko dira eguna borobiltzeko

### TTIPI-TTAPA

Doneztebe Futbol Taldeak bere eguna antolatu du ekainaren 14rako eta egun osoan ez da aspertzeko aukerarik izanen.

- 11:00 gurasoen arteko partiduak futbol zelaian.
- 17:00 Txiki eta Benjaminen partiduak futbol zelaian.
- 19:30 Txiki, Benjamin, Alebin eta Infantilentzako merendua plazaletan.
- Ondoren haurrentzako musika plazaletan ENDARA DEEJAYS-en eskutik.

- 19:30 Bertso-poteoa Julen Zelaieta eta Egoitz Gorosterrazu-ren eskutik herriko ostatuetan barrena trikitixarekin alaitua, IRRIN-TZI ostatutik abiatuta.
- 21:30 Klub-aren afaria jokalaria, entrenatzaile eta nahi lukeen jarraitzaileekin, SANTAMARIA jatetxean. Apuntatzeko TITI ostatuan eman izena ekainaren 12 baino lehen.
- 00:30 Gaupasa ENDARA DEEJAYS-en eskutik.

### Errekaren krosa igandean

Erreka Kirol Elkartek Herri Krosaren XXXVI. edizioa antolatu du. Aur

### Ba al zenekien

Oriamendi enpresaren ranking-aren arabera maiatzeko erremontelaririk onenak izanen direla Xanti Uterga A multzoan (37,83 puntu) eta Josetxo Ezkurra II B multzoan (37,33 puntu)



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Doneztebe Futbol Taldeko jubenilek igoera fasea jokatu dute, baina ez dute igotzerik lortu.

ten, Ekainaren 15ean, igandean, izanen da.

Inskripzioak egun horretan bertan eginen dira irteera puntuan edo [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) web orriaren bidez. 5 euro ordaindu beharko dute jubenilek eta hortik aintzinerako kategoriek. Gazteentzat doan izanen da.

San Pedro besten aitzineko igandean burutzen da normalean krosa, baina aurren aste bat aitzindu behar izan dute. Azken urteetan 200 korrikalari baino gehiago atetara dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Dantza ikuskizun berezia prestatu du Erreka dantza taldeak larunbaterako

Ekainaren 14an, larunbat gaueko 10etan kiroldegian, dantza ekitaldi benetan berezia prestatu du Erreka Dantza taldeak. Musika eta dantza modernoetan oinarritua, hilabete aunitzeko lana dago gibelatik. Nabarmendu nahi dute herriko komertzio eta enpresek emandako laguntza ekonomikoa, «hori gabe ezinezkoa izanen zelako guzti hau aitzinera ateratzea». Ez da ohiko dantza ikuskizuna izanen, izan ere inoiz ez da horrelakorik egin Donezteben. «Lan haundia, entsaio eta ordu aunitz... kurtso guztia hau prestatzen!» diote Erreka dantza taldetik.

## APARAN, S.A.

**ERIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**Lizun**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

**Gure Haragia**  
**Nuestra Carne**



OSPAKIZUNAK → HELDU DEN URTEAN ELGORRIAGAN

## Malerrekako Eguneko mus txapelketa eta lekukoa herrira

Xabi Olazar eta Endika Larralde irabazi zuten musean

**Mattin LARRALDE**

Maiatzaren 31n Donezteben ospatu zen Malerrekako Egunean, Elgorriagako Xabi Olazar eta Endika Larralde mus txapelketan txapeldun suertatu ziren. Zapela, ardoa eta 50 euro izan zituzten saritzat. Egun berean Elgorriagak hartu zuen lekukoa heldu den urtean Ma-

lerrekako Eguna antolatzeko. Bertan izan ziren alkatea eta zinegotzi pare bat, 2015ean gure herrian egiteko erleboa hartzen.

### Zorroilo elkartearen batzarra

Zorroilo elkartearen batzar orokorra egin zen ekainaren 1ean. Bertan, kontuak eman eta galdarak egin ondoren junta berritzeko hauteskundeak ere egin ziren. Datozen bi urteotan batzordea osatzeko 7 lagun hauek hautatu zituzten: Josu 42 botorekin, Karmele 34rekin,



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

### 800 dukado mendi maratoirako bideoa herrian ere grabatu zen

Irailaren 7an eginen den 800 dukado maratokia, inguruko mendietatik eginen den emakumeendako Munduko lehen mendi maratokia izanen da. Promozionatzeko grabaketan parte hartu zuten herriko haur eta emakumeek.

Olaia 32rekin, Migueltxo 32rekin, Alvaro 24rekin, Patxi 22rekin eta Inaxio 17rekin. Lau suplente ere hautatu zituzten.

### Herriko Ostatuaren bigarren urteurrena

Herriko Ostatuaren bigarren urteurrena ospatzeko zenbaitekintza antolatu dituzte ekainaren 14an. Larunbat goi-

zeko 11etan artisauen erakusketa eginen da, trikitixak alaiturik. 13:00etan Angeluxka doinuak emanen ditu elizako dorreko ezki leletrikoak. Garai batean eguerdian Angelusa hasteko doinua izaten zena, orain poteoa hasteko doinua izanen da. 14:30ean herri bazkaria eginen da. 19:00etan La Jodedera taldearekin

kontzertua izanen da. 20:00etan parrillada. Ondoren, La Jodederak joko du berriz eta gero DJ Torororekin bukatuko da arratsa. Animatu eta etorri, egun polita izango da eta.

Zorionak Herriko Ostatukoei, bi urte egin dituztelako eta horrelako egun polita herri-tarrentzat antolatzeagatik. Segi lanean jo eta su!

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**UDAKO KOLEKZIO BERRIA**

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

## ITUREN

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 15EAN

# Trinitate Eguna ospatuko da igandean

Goizeko mezak, enbaltseko bazkaria eta gaueko dantzaldia

## Arkaitz MINDEGIA

Asteburu honetan, ekainaren 15ean urteroko hitzordua izanen dugu Mendaurko trinitate ermitan. Herritarrentzat egun haundia izaten da baina Arantzaz, Sunbilla, Zubieta eta inguruko herrietatik ere biltzen da jendea.

Goizean bi meza izanen dira 10etan eta 12etan. Jendea aunitz Trinitate ermitaren magalean jarri eta gosari eder baten bueltan bilduko da lagun artean eta batzuko ohiturari eutsiz hurrengo bat hartu eta ermitari 3 buelta eman ondoren desio bat eskatuko dute.

Eguerdian enbaltsean bazkaria eginen dute aurtiztarrek eta Itundarrek eta ilunabarra arte musika izanen da bazkal ondo girotzeko. Ondotik denak elkarrekin Aurtitzera jau-tsi, tragoxka batzuk hartu eta Iturenen akittuko

dute hitzordua. Gauerdira arte dantzaldia izanen da Iturengo Plazan.

## Bestetako kartel lehiaketa

Bestetan erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Iturengo udalak. 16 urtetik goitiko edozeinek hartu dezake parte eta ekainaren 17a, astearte eguerdia, izanen da lanak aurkezteko hondar eguna. Irabazleak 100 euro eta sari sorpresa bat irabaziko ditu.

Kartela egiteko gaia eta teknika irekiak izanen dira eta lan orijinala behar du izan. Beti ere, Ituren edota bere izaera edo kulturaren ezaugarriak agertzea baloratuko da. Formatua eta teknikari dagokionez, lanak A3 tamainan inprimatuko dira (29'7x42 cm.) eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, 240 ppp guttieneko erresoluzioaz, edozein teknika erabiliz.

Leloari dagokionez, *Iturengo Bestak 2014 Uztailak 18-21* agertu beharko du eta beranduago egileari emanen zaion programa itxeki-



ARGAZKIA: ARANTXA ARIZTEGI

## Eskolako irteera

Maiatzeko azken astean Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleek irteera ezberdinak izan zituzten. Argazkian ageri den bezala ttikienak Bertizera 2 egun pasatzen joan ziren eta helduxeagoak Hondarribiako Elkanora.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

## Mendaur trikitixa eskolaren ikasturte bukaera

Mendaur trikitixako ikasleek herri ezberdinetan kurtso bukaerako kontzertuak eman ohi dituzte. Maiatzeko azken astean Oronoz-Mugairi eta Legasan egin zituzten eta ekainaren 4an Aurtitz, Ituren eta Zubieta ikasleekin Aurtizko frontoian kontzertu zoragarria eskaini zuten, guraso eta lagunuen aitzinean.

tzeko tokia kontuan izan beharko du.

Pertsona bakoitzak lan bakarra aurkez dezake udaletxean edo [udala@ituren.es](mailto:udala@ituren.es) helbidetan.

Irabazleak 100 euro

irabaziko ditu eta aurkeztutako lan guztiak udalaren esku geldituko dira, hilabeteko epean egileak eskatzen ez badu behintzat.

Lan guztiak jaso ondoren erakusketa publi-

koa eginen da eta herritarrek erabakiko dute zein izanen den kartel irabazlea. Edozein zalantzaren aurrean, udalak izanen luke azken erabakia hartzeko eskubidea.

**12 KAMISETA ZOZKETATUKO DITU GU**  
urtean zehar

**onddo**  
ta punto.

Zaplagunutze, 3  
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)  
Tel./Fax: 948 450 236  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



## ZUBIETA

GIZARTEA → TXITXILLO ELKARTEAREN ESKUTIK

# Udari begira ludotekaren denboraldia akitu da

Hurrengo  
ikasturtean  
berriz ere  
zabalduko dute

**Fermin ETXEKOLONEA**

Udaberriko kanpaina akitu eta uda partearako itxi egingen du ludoteka Txitxillo elkarteak. Ekainaren 6an egitekoea zuten bilera gurasoek, balorazio gisa-

ra. San Juan bezperako afaritzoaz eta beste-tako haurren egunari buruz ere solastu zuten.

### Malerrekako Eguna

Zubietarrek ere parte hartu zuten Malerrekako Egunean. Goizean udal ordezkariak gosarian parte hartu zuten eta abesbatzan, dantzarietan eta artisaue-tan ere baziren herritar-rrak, paella prestatzen,



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

### Maiatzeko Aingeruak

Urtero bezala aingeruak izan dira maiatzean. Ezkerretik eskuinera: Marion Elizalde, Saioa Mariezkurrena, Ixone Elizalde, Garazi Santesteban, Jone Indakotxea eta Lorea Santesteban dira. Luaia Fagoaga ere ibili da baina argazkian ez da ateratu.

bazkalondoko soinu-lariak eta Muxikoetan bezalaxe. Aizkolarietan ere bazen herritarrik eta eguna despeditzeko Zubietan eta Iturengo joal-dunek giro polita jarri

zuten. Egun ederra joan zen! Mila esker har-reragatik eta herritarrei ere parte hartzeagatik.

### Udal langilea

Beste udal langile bat

hartu dute Herriko Etxean, dirulaguntza bat aprobetxatuz. Beraz, herriko mantenimendu lanak egingen ditu uda aldean Ander Aragon Ibarak.

## URROZ

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 21EAN

# Artisau Eguna antolatu dute hirugarren aldiz

Eskulangileen  
lanak, herri  
bazkaria  
bertsolariekin  
eta musika  
izanen da

**Joseba URROTZ**

Aurten ere, hirugarren aldiz segidan, uda hasierako besta ospa-tuko da artisau azoka-

ren inguruan. Ekainaren 21ean izanen da, eta ait-zineko alditan bezala, goizez artisau azokare-kin hasiko da eguna. Ondotik herri bazkaria bertsolariekin, eta ilu-nabar arte musika izanen da giroa alaitzeko eta dantza egiteko. Hurrengo egunetan egita-rau zehatzagoa zabalduko da eta bazkarira-ko txartelak ere salgai jarriko dituzte.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Giro ederra izanen da aurten ere Artisauren Egunean.

### Urrezko Aizkora finalerdia

Maiatzaren 24an jo-katu zen Urrezko Mai-lako, Eusko Label sa-riaren bakarkako aizko-

lari txapelketaren fina-lerdia. Hiru aizkolari ari-tu ziren hainbat erata-ko saioetan: Jon Rekon-do, Ander Erasun eta Felix Etxeberria. Jon Ri-kondok egin zuen den-

borarik onena, guzira minutu eta erdi inguru-ko aldea ateri baitzien bertze aizkolariei. Hor-taz, Leitzako aizkolaria izanen da final nagusi-an.

# MALERREKA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 31N

## Ehunka lagun bildu zituen Donezteben Malerrekako Egunak

Doneztebeko 16 elkarte omendu zituzten

### Fermin ETXEKOLONEA

Malerrekako Mankomunitatean dauden hamahiru udalerrietako herritarrak Donezteben bildu ziren larunbatean, hirugarren aldiz egin den Malerrekako Egunaren baitan. Lehen bi edizioetan Zubietan eta Eratsunen izandako arrakasta errepikatuz, ehunka lagun bildu ziren egun osoan egin ziren ekitaldietan parte hartzeko asmoz.

### OMENALDIA

Goizean Bear Zanan eta Santa Luzia Plazan egin beharreko ekitaldi gehienak kiroldegian egin zituzten, euriaren beldur. Aurrekuaren ondotik, Doneztebeko Udalak herriko hamasei kultur eta kirol elkarteri omenaldia eskaini zien. Hain zuzen, Erreka Kirol Elkartea (Joseba Legarra), Laxoa Elkartea (Patxiu Ganboa), Doneztebe Futbol Taldea (Jaime Sein), Mendi Abesbatza (Ainara Mendia), Ezpelura emakume taldea (Marisol Arraztoa), Txistulariak eta musika taldea (Jo-

ne Aldabe), Biherrri ehiztari elkarte (Eduardo Oiartzabal), Mendaur Guraso Elkartea (Lourdes Goñi), Erreka Guraso Elkartea (Cristina Etxeberria), Askin Guraso Elkartea (Maria Jose Ezkurra) eta Agorreta Musika Eskola (Marta), Doneztebarrak merkatari elkarte (Natalia Rekarte), Dantzari Tikiak (Oihana San Migel), Gazte Burrunba (Josu Telletxea), Arkupak eta Erraldoi konpartsa (Juan Ramon Ostiz) izan ziren omendutakoak. Musika Eskolako musikariak eta buruhandiak ibili ziren herrian barna eta Malerrekako herri ezberdinetako dantzariak eta Mendi Abesbatzak emanaldia eskaini zuten.

Aldi berean, artisauak eta talogileak beraien produktuak erakutsi eta saldu zituzten eliz atarian eta Santa Luzia plazan betiko ofizioen erakustaldia egin zuten. Leku berean paratutako karpan egin zen pella jatea, Malerreka Kantuz-en parte hartzen duten abeslariak lagunduta.

Arratsaldean, Muxikoak izan ziren Santa Luzia plazan, Musika Eskolako musikariak lagunduta eta Malerrekako Mus Txapelketaren



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Dantzariak kiroldegian eskaini zuten emanaldia eta eskulangileak eliz atarian bildu ziren.

finala jokatu zen. Elgorriagako Endika Larralde eta Xabi Olazar suertatu ziren txapeldun, finallean Oizko Jexux Mari eta Leireri irabazita. Tikiak berendua izan zuten eta aizkora apustua ere jokatu zen Bearzanen. Txapelketako laxoa partida ere jokatu zen Bearzanen eta Oizek 2-9 irabazi zion Doneztebe Dri. Pilotaren inguruko erakusketak ere izan zen Kasino elkartearen.

Ondoren zozketa egin zen. Bi saskietako bat Iturengo Mila Erregerenari suertatu zitzaion eta bertzea Maider Serrano de Miguel saldiastarrari. Bi lagunendako afaria, berriz, Doneztebeko Juan Te-

lletxeari egokitu zaio. Mus txapelketako sariak banatu ondotik, hurrengo urteko Malerrekako Eguna antolatze-ko lekukoa pasatu zioten Doneztebeko udal ordezkariak Elgorriagakoei.

### MALERREKA LEIHOTIK BEGIRA

Malerreka Leihotik begira lehiaketaren sari banaketa ere egin zen. Argazki eta literatur lehiaketa honetan Malerrekako eskoletako neska-mutikoei hartu dute parte eta arrakasta handia izan du, 156 lan aurkeztu baitira. Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. Mailan, lehen saria Doneztebeko Nahia Ganboa Anzizarrek eskura-

tu du *Galbaraialde* lanarekin eta bigarrena Saldiasko Ugaitz Otxandorena Artzek, *Saldiasko labadero bakarra* lanarekin. LHko 5 eta 6. Mailan, Doneztebeko Aritz Zulaika Irigoienek lortu du lehen saria *Nire txokorik kuttunena* lanarekin eta bigarrena Sunbillako Jon Mikel Gaztelumendi Jorajuriak, *Baratxurin punttua* lanarekin. DBHn, azkenik, Mendaur institutu-ko Itziar Agirrek eta Idoia Gardek lortu dute lehen eta bigarren saria.

Joaldunekin, Santamaria jatetxean egindako afariarekin eta Oharkabe taldearen musika-ekin akitu zen Malerrekako Egunaren hirugarren edizio hau.



GIZARTEA → 46 BAZKIDEK EGIN DUTE BIDAIA

## Benidormen eguraldi eta giro bikainean

Ez dute orain arteko hotelean hartu ostatu

**Fernando ETXEBERRIA**

Ttipi Tttapako azken alean aipatu genuen, 46 bazkide Benidorm alde-  
ra joatekoak zirela maiatzaren 19tik 31ra. Azken 20 urte baino gehiagotan, Fenicia hotelean hartu izan dute ostatu baina aurretik ez da horretarako aukerarik izan. Poseidon hotelera joatea erabaki dute eta guztiak gustura ibili dira bertan. Instalazioak oso ongi zeudela eta bazkaria ere benetan goxoa zela aipatu digute. Dena den eragozpen tiki bat ere izan dute: hotelak 14 solairu ditu eta 4 igogailu, horren ondorioz bazkalatzeko eta afaltzeko orduan kolapsatu egiten ziren. Bizkorrenek bazkalordua aurreratu zuten, horrela arazoa ekin zuten.

Eguraldia ere lagun izan zuten, gauetan giroa frexkatuta. Elkartekide batzuk barkuz paseo bat emateko ere probestu zuten egunetako bat eta besteak beste Calpeko falch harkaitza ikusi eta mariskada eder bat jateko aukera izan

zuten. Itzulerako bidaia ere aurrekoetan baino erosoagoa izan zela aipatu dute. Geldialdiak moldatu eta ordutegia aldatu dute, hala gehienak etxean zeuden arratsaldeko seiak baino lehen.

### ORDEZKARIEN BILERA

Maiatzaren 22an Arkuppeak Elkarteko 32 ordezkari bildu ziren Donetztebeko egoitzan.

Pedro Bañares presidentearen agurraren eta aurreko bilerako aktaren irakurketaren ondoren, bilerako gai garrantzitsuez hasi ziren solasten.

2013ko diru balantzea egin zuten eta 492.243,09 euroko diru sarrera eta 490.952,01 euroko gastua egin zenez, 1.291,08 euroko irabaziarekin bukatu zen urtea.

10. boletina ere aurkeztu zen, bazkideen artean banatu aurretik eta Europa eta Argentinara antolatu dituzten bidaiak azpimarratu zituzten. Argentinara joateko asmoa dutenek, 30 euroko aseguru bat har dezakete nahi badute.

Irailetik aurrera ikastaro berriak eskaintzeko asmoa ere badute,



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Nabari da argazkietan primeran pasa zutela elkartekideek.

baina horien berri aurrerago emanen zaizue.

La Caixako ordezkariak ere bilerara agertu ziren formazio saio ba-

tzuen inguruan solasteko: informazio eta komunikaziorako teknologiak, osasuna eta ongizate soziala, bolunta-

riotza, gizarte lana... besteak beste. Hitzaldi batzuk ere eskainiko dituzte "irrifar batekin esnatzearen" inguruan.



**2**

AFARI BIKOITZ  
ZOKETATUKO  
DITUGU  
urtean zehar



**POSADA OITZ**

Nagusia 1 OITZ  
T. 948 451 951 - 948 450168  
[www.posadaoitz.com](http://www.posadaoitz.com)



# SALDIAS

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 20TIK 24RA

## San Juan bestetan kirola izanen da protagonista

Asteburu osoan pilota partidak eta igandean eta egun handian aizkora apustuak izanen dira

**Markel LIZASOAIN**

San Juan bestak ateko joko ditugu eta aurten ere egitarau zabala pres-tatu dute giro ederrean ospatzeko:

### OSTIRALA, EKAINAK 20

- 20:00: ohiturazko zopak Herriko Ostatuan.
- Gauetz: dantzaldia Modesto akordeolariarekin.

### LARUNBATA, EKAINAK 21

- 11:00: herriko mustxapelketa.
- 18:00: pilota partidak. Jubenilak, lau terdian: Bakaikoa-Medina. Afizionatuak: Elizalde-Martija, Jaunarena-Anduezaren kontra.
- 14:00: zikiro jatea.
- Arratsaldean eta gauetz:



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Herritarren arteko saiorik ez dute iragarri aurten, baina kirolak lekua izanen du bestetan.

dantzaldia GABENARA taldearekin.

### IGANDEA, EKAINAK 22

- 13:00: aizkora apustua: Migeltxo Míndegia eta Ruben Saralegi, Asier Pellejero eta Ander Erasun.
- 18:00: pilota partidak. Jubenilak: Bakaikoa eta Martija, Juankorena eta Medinaren kontra. Afizionatuak, lau terdian: Elizalde-Jau-

narena.

- Arratsaldean: dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

### ASTELEHENA, EKAINAK 23

- 11:30: haur jokoak.
- 15:00-19:00: umeen parkea, kart eta gaztelu haizatuak.
- Arratsaldean: trikitalariak.
- 22:00: San Juan suak piztuko dituzte, nahi duenak salto egiteko.

### ASTEARTEA, EKAINAK 24

- 10:00etatik aurrera: txistulariek alaituko dute herria.
- 11:30: Meza Nagusia, San Juan herriko patroien ohorez.
- 13:00: Aizkora apustua: Eneko Saralegi-lker Bizente.
- 14:00: herri bazkaria Herriko Ostatuan trikitalariarekin. Trikitalariak segituko dute arratsaldean.

## OLZ

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 25EAN

## Joxe Joakin Ziganda omendu dute Laxoaren Egunean

Laxoa Elkarteak koadroa eta kamixeta eman zizkion

### TTIPI-TTAPA

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, Laxoa Egun osoan ospatu dute maiatzaren 25ean. Egun osoan laxoaren erakusketa, argazki erakusketa,



UTZITAKO ARGAZKIA

Joxe Joakin Ziganda koadroarekin, omenaldian parte hartu zutenekin batera.

artisansak, musika eta pintxo dastaketa izan zituzten. Eguraldiak ez zuen lagundu eta Laxoa txapelketako partidarik

ez zen jokatu, baina goiza giro ederrean joan zen. Jose Joakin Zigandari omenaldia eskaini zitzaion eta Laxoa El-

kartearen izenean, koadroa eta kamixeta jaso zituen, Tiburtzio Arraztoa eta Alberto San Miguel alkatearen eskutik.



GIZARTEA → UZTAILEAN

# Ikasturtea bukatu orduko udako ikastaroen txanda dator

Guraso  
Elkarteak  
antolatuta  
igeriketa eta  
kirolak izanen  
dituzte

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, ikasturtea bukatu orduko udarako ikastaroen eskaintza egin du Guraso Elkartek. Gutxienez zortzi hurrek eman behar izaten dute izena eta azkenean bi ikastaro atera dira aurrera: igeriketa eta kirola.

Igeriketako ikasleak uztailaren 1etik 30era

dira, astelehenetik ostiralera goizero joango dira Hernanira autobusean. Kirola aukeratu dutenak, berriz, astean hirutan elkartuko dira. Hirugarren astean piragua ikastaroa egingen dute Fagollagan.

## Doinu bidaia

Amaia Artze erizainak Doinu bidaia ikastaroa eskainiko du ekainaren 21ean, larunbatean 18:00etan Udaletxeko Ganbaran. Taldeko doinuterapia saioa izanen da, «arimarentzako masaia». Sarrera 10 euro ordaindu eta esterilla eta manta eraman behar dira.

KIROLA → MAIATZAREN 25EAN

# 133 korrikalari III. Herri Krosean

Unai  
Señoranek  
irabazi zuen  
hirugarrenez

## TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25ean joatu da Goizuetako III. krosa. Batetik, 64 neska-mutikok parte hartu zuten txikien kategorian. Helduen lasterketan 69 pertsonak eman zuten izena baina egural-

di txarragatik, gutxiago atera ziren azkenean. Gizezkoetan lehenengo, hirugarren urtez jarraian, Irurako Unai Señoran Bengoa izan zen (32:18). Bigarren Raul Gomez Margallo izan zen eta hirugarren Cipri Burcio. Emakumezkoetan, irabazlea, Cristina Loe da Soto izan zen (38:55). Herriarren artean Martin Etxeberria eta Ane Zinkunegi izan ziren onenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Udalerri Euskaldunen Eguna aldeko mosaikoa

Orain arte UEMA Eguna izan dena aurten Udalerri Euskaldunen Eguna izanen da. Tolosan egingen da, ekainaren 14an. Goizuetako herritarrek egun horretan parte hartzeko eta bertara joateko deia egin dute, eta horretarako *Euskaraz garr* leloarekin mosaiko bat osatu dute, argazkian ikus daitekeen moduan.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

## 65 txirrindulari Iskibi kanpinak antolatutako V. BTT zeharkaldian

65 txirrindularik parte hartu zuten ekainaren 1ean Iskibi kanpinak antolatzen duen BTT zeharkaldiaren bosgarren edizioan. Eguraldiak ez zuen batere lagundu eta lohia izan zuten txirrindulariek ibilbidean, baina halere umorez eta indartsu osatu zituzten 50 eta 32 kilometroko ibilbideak, parte hartu zuen herritar bakarrak, Iker Apezetxeak argazkian erakusten duenez.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Probako gizon, emakume eta herritar onenak, Jon Huizi Umore Onako presidentearekin.

## LEITZA

GIZARTEA → EMAITZEK HERRITARREN NAHIA «AGERIAN» UZTEN DUTELA DIOTE

# Pediatria zerbitzua euskalduntzeko 171 eskaera bildu dituzte

Urratsak  
eskatzen  
dizkiote  
Nafarroako  
Gorbenuari

JM BARRIOLA

Mediku euskalduna nahi dut ekimena burutu dute berriki Leitza, Arano, Areso eta Goizuetan. Maiatzaren 27an Leitza-ko udaletxean egindako agerraldian baloratu dituzte lortutako emaitzak kanpaina bultzatu duten eragile desberdinetako ordezkariak. Azpimarratu dute «emaitzak oso onak izan direla eta argi erakusten dutela herritarren nahia» zein den. Denera 171 eskaera lortu dira, Leitza 99, Goizuetan 54 eta Areson 18.

«Legeak eskubidea aitortu arren, errealitatea gordina» dela salatu zuten. Seme-alaba eta medikua elkar ezin ulertuz, «gurasoek itzultzaile lanetan aritu behar» izaten dutela. Arazoa mahaigai-  
nean jartzeko asmoz abiatu zuten ekimena, Alaitz Eskudero, Nafa-



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA

Ekimenean parte hartu duten erakundeetako ordezkariak eta gurasoak, Leitza-ko udaletxean maiatzaren 27an emandako prentsurrekoan.

arroako Iparraldeko Eus-kara Mankomunitateko lehendakariak azaldu zuenez, urte askoan iraun duen "gabezia handi" bati erantzun nahian. Lau astez iraun du dinamika eta gaia gizarteratzeko herritarren testigantza jasotzen duen bideo bat zabaldu, esku-orri bat argitaratu eta sare sozialak, webguneak eta hedabideak baliatu zituzten. Segidan, eskaera ofizialak bete zituzten Nafarroako Gobernuak osasun etxean eskura jartzen dituen inprimaki ofizialen bidez.

Eskaria bete duen, Ainhua Bigera leitzarrak «eskaera xumea bezain garrantzitsua» dela azpimarratu zuen, «Nafarroako Gobernuari eskubide hau bermatzeko beharrezko pausoak eta lege aldaketak egitea eskatzen diogu, aldaketa egiteko prest agertuko balira pediatrik badaudelako, euskaldunak edota euskalduntzeko prest daudenak. Beraien esku dago bermatzea».

Eneka Maiz UEMA-ko ordezkariak gogorazti zuen eskualde honetan gertatzen dena ez

dela errealitate isolatua, «Nafarroako UEMAko 14 udalerrietan, 8 pedi-atra ari dira lanean eta horietatik lauri bakarrik eskatzen zaie euskaraz jakitea».

Horregatik, Garbiñe Petriati, Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendariak gisa honetako ekimenak antolatzeko duen garrantzia azpimarratu zuen «egoe-ra agerian uzteko» eta Osasun asistentziaren kalitatean ere eragiten duenez «komunikazio eraginkor hori lortu artean, salatu beharra dagoela» aipatu zuen.

## HURRENGO PAUSOAK

Bildu diren eskaerei jarraipena egiteko asmoa dute orain, eta Nafarroako Gobernuari eskaera formalak eginen diete euren eskakizunak kontuan hartu eta plantila organikoan beharrezko aldaketak egin ditzan.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## FLASH

### II.mendi erronka

Iker Karrera amezketa-rra izan zen garaile, ibilbidea 06:34:39an osatuta. Lehen emakumezkoa, Leire Fernandez 16 urteko gaztea izan zen 08:02:36ko denbora eginaz. 725 lasterkarik eman zuten izena eta 442k osatu zuten ibilbidea denbora barrenean.

## GIZARTEA

### 360 herritarrek parte hartu dute Gure Esku Dago giza-katean

JM BARRIOLA

Giza-kate erraldoia egin zen ekainaren 8an eta 360 leitzarrak parte hartu zuten bertan, eskualdetik guztira 850 inguruk. Leitza 7 autobus irten ziren, Izara joateko eta giza-kateko 110. kilometroan elkarri eskutik eutsita jartzeko. Hain juxtu kataluniarren ondorengo kilometroa zen hau. Pesta giroa nagusitu zen, «Nazioa gara, erabakitze-ko eskubidea dugu, herritarren garaia da» lelopean Iruñea eta Durango lotu ziren egunean.

## XXXVI. Eskulangintza azoka jendetsua

European, baina jende ugari ibili zen ekainaren 1ean egin zen Kultur Aroko artisau azokan. Guztira 60 postu izan ziren ikusgai. Larua, bitxigintza, jostailuak, papera, zura, janariak, saskiak... ikusi eta erosteko aukera bikaina izan zen. Artisauak zuzenean lanean ikusi eta galderak egiteko aukera ere izan zuten bertaratutakoek. Horien artean begirada gehienak, egurra lantzen duten artisauak bereganatu zituzten, ikusgarriak ziren ezpela eta olibondoekin egindako sukaldeko lanabesak, altzariak, zuhaitz zainekin egindako artelanak... Aspaldiko partez kaikugilea ere izan zen bertan lanean.



KIROLA → ANARTZ OLANO ESPAINIAKO TXAPELDUN APEZTEGIAREKIN

# Herritarrak sasoi betean, txapelak lortu eta lortu

Gipuzkoako emakumezkoen I.trontza txapelketa irabazi dute Onsalo eta Astiazaranek

**Juana Mari SAIZAR**

Itxaso Onsalo areso-  
arra eta Leire Astiaza-  
ran zizurkildarrak iraba-  
zi dute lehenengo aldiz  
egin den Gipuzkoako  
emakumezkoen trontza  
txapelketa. Beasainen  
izan zen saioa, eta par-  
taideek 45 ontzako en-  
bor orizentalari 10 kor-  
teeging beharizan zizkio-  
ten. Lau bikote aritu zi-  
ren lehian eta probaren  
amaieran, gure bikotea  
izan zen denborarik  
onena lortu eta garai-



ARGAZKIA: JM SAIZAR

Eskuinean Itxaso eta Leire, Beasainen lortutako sariekin eta ezkerrean Anartz k.

pena eta txapela esku-  
ratu zituen. Lan ordu  
asko eta esfortzu han-  
dia egin dute hau lor-  
tzeko baina azkenean  
egindako lanak eman  
du fruitua! Zorionak bi-  
kote!

Anartz Olan herriko  
pilotariak ere partidak  
jokatzen eta txapelak

irabazten jarraitzen du,  
argazkian Espainiako  
Txapelketa irabazi os-  
tean Apeztegia bikotea-  
rekin ageri da. Ez da lor-  
tu duen txapela baka-  
rra lurtzunen ere garai-  
le atera baitzen Azanza  
lagun zuela. Txapelketa  
gehiago ere jokatzen ari  
da, tartean Mallabiakoa.

Pozgarria da herriko ki-  
rolariak emaitza onak  
lortzen ari direla jakitea,  
jarraitu lanean eta zo-  
rionak!

## GIZARTEA

### Amorruaren aurkako txerto kanpaina

**Juana Mari SAIZAR**

Amorruaren aur-  
kako txerto kanpaina  
egingo da herrian da-  
torren ekainaren  
16an, astelehenean  
16:00etan udaletxe  
azpiko trinketean.  
Txerto hau hartzeko  
lau hilabetetik gora  
izan beharko dute  
txakurrek eta norta-  
sun agiria eta txaku-  
rraren kartila aurkeztu  
beharko dira. Kontu-  
an hartu behar da bi  
urtetik behin derrigo-  
rrezkoa dela txaku-  
rrak txertatzea. Iden-  
tifikatzea eta txerta-  
tzea 39,50€ kostako  
da, txertatzea soilik  
17,80€ eta jabetza al-  
daketa egiteko 8€ or-  
daindu behar-  
ko dira.



## Ba al zenekien

65 joan zirela giza-katean parte hartzeko Itza-  
ra, 110km.ra. Primeran ibili ziren. Ea horrelako  
pauso gehiago ematen segitzen dugun!

# berria

berritzen ari gara  
guztion ekarpenarekin...  
eta zure laguntza sartu nahi dugu

## Parte hartzeko, bidali:

- Zozketa + izen-abizenak  
Telegram, Whatsapp edo SMS bidez  
(0034) 687-48 97 84
- Eman izena webgunean: [www.berria.info/zozketa](http://www.berria.info/zozketa)

Zozketa ekainaren 20an egingo da, eta  
sardunak 21ean argitaratuko dira BERRIAN.

## Parte hartu zozketan

Sariak:

Arzak jatetxean 3 orduko  
bi laguntzarik

OPARI TXARTELA  
100€  
50 DORTU

EROSKI  
Sariak  
EROSKI bidaliak  
Sariak 100€ saria irabaziko du

ADZ-K  
berria

## BAZTAN

BESTAK → EKAINAREN 18TIK 22RA

# Almandozko Bestaberri bestek ere egitarau zabala izanen dute

Egun handian Aurora, Meza, pilota partidak eta tortilla lehiaketa izanen dute

## TTIPI-TTAPA

Almandozko Bestaberri bestak ospatuko dituzte ekainaren 18tik 22ra. Tradiziozko Auroretatik hasi eta DJ modernoetara, denetarik izanen dute egitarau zabalaren barnean:

## ASTEAZKENA, EKAINAK 18

- 12:00: txupinazoa.
- 21:00: Baztan zopak, Sandrak alaiturik.

ORTZEGUNA, EKAINAK 19  
BESTABERRI EGUNA

- 08:00: Aurora Bixente soinu-joleak alaiturik.
- 12:00: Meza Nagusia.
- 13:00: luntx herriko frontoian.
- 16:30: herriko gazteen arteko pilota partidak.
- 20:30: tortilla lehiaketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bestaberri eguneko goizean Aurora kantari aterako dira, aspaldiko ohiturari eutsiz.

ORTZIRALA, EKAINAK 20  
HAURREN EGUNA

- 11:00: Haurren jokuak.
- 16:00: puzgarriak.
- 17:00: mus txapelketa.
- 18:00: Txokolatada.
- 21:00: herriko afaria.
- 00:30: dantzaldia GAUBELA taldearekin.
- 06:00: Gosaria gau-txorientzat.

## LARUNBATA, EKAINAK 21

- 11:00: Mus txapelke-

tako finalaurrekoa eta finala.

- 13:00: mus txapelketa sarien banaketa.
- 14:00: zikiro jatea.
- 17:00: DISTRITO FEDERAL Mariatxiak.
- 00:00 DJ BEITIKUTX.

## IGANDEA, EKAINAK 22

- 12:00: Meza Nagusia.
- 16:30: herri kirolak.
- 18:30: zozketa.
- 19:00: puzgarriak.
- 22:00: Gaixoa Ni, bestak akitzeko.

## FLASH

## Haurrentzako pintura eta grabatu tailerra

Ekainaren 23tik uztailaren 6ra, 5-9 urte arteko haurrentzako Javier Ciga pintura eta grabatu tailerra eskainiko dute Eneko Perez eta Sonia Ilzarbek Arizkunenean. Asteleheneretik ortziralerara, 10:30etik 12:30era eskainiko da. Izen emateko epea ekainaren 17an akituko da eta 20 euro kobratuko da.

## Kanpoko margo ikastaroa

Abuztuaren 1etik 14ra Tomas Sobrinok eskainiko duen helduendako Baztango paisaiak kanpoko margo ikastarorako izen emateko epea zabalik dago. Prezioa: 130 euro.

## HEZKUNTZA

## Herrietako eskoletako ikasleak Irurritako Erreboteko Eskolan

## TTIPI-TTAPA

Baztango herrietako 10 eskoletako ikasleak asteazkenero Irurritako Erreboteko eskolan elkartzen dira, ingelera (2 saio), musika eta Gorputz Hekuntzako saioa jasotzeko. Ikasleak mailaka taldekatzen dira, eta honen helburua, bertzeen artean, herrietako haurrak elkar ezagutzea da. Asteazkenero 140 ikasle 8 taldetan elkartzen dira. Ekimen honek, biltzen den ikasle kopuruagatik eta antolakuntza aldetik aldaketa haundia dakar.

**ANZABAL INMOBILIARIA**

- Zuzen Aneguruek Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aneguruek
- Lan aholkularitza Norrena eta Aneguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria Baserri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alokairuak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**Mármoles SOULE**  
HILETA ARTEA  
T. 948 453 444  
M. 629 659 583  
ARIZKUN

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
www.facebook.com/ttapi.ttapa

**Gierresenea**  
OSTATU • JATETXEA  
Jaki tipikoak • Etxeko giroa  
Iturriotz auzoa • Tfnoa: 948 592 043  
ORONÓZ • MUGAIRI



GIZARTEA → ERDIZKO HARROBI EGITASMOA DELA ETA

# Ikamika Baztango Ezkerra eta Garapen Elkartearen arte

Magnaren  
proiekturako  
lur erreserbarik  
ez da sartu  
Udalak  
onartutako  
EMOTean

## TTIPI-TTAPA

Baztango Ezkerra eta Baztango Garapenerako Elkartea ikamikan dabil. Garapen Elkartearen ustez, Baztango Ezkerrak seriotasun gutti erakutsi du Erdizen Magnaren proiekturako lur erreserba ez duenean sartu EMOT-Baztanen baitan, «UPNrekin eta enpresarekin egin dako bileretan horren aldeko hitza eman zuenean».

Ezkerraren oharrak dioenez, «pertsonek batzuei burua maiz freskatu behar zaie, errealitatea manipulatzeko joera baitute. Hau da Baztango Garapenerako Elkartea izeneko elkarteari gertatu dena. Hauen, haien helburua Baztanen aberastasuna sortuko duten enpresa proiektuak eskuratzea dela diote, baina haien ekintzak ikusita enpresa pribatu edo alderdi politiko zehatz baten itzaleko ordezkariak direla dirudi».

Ezkerratik aipatu du-

tenez, beti defendatu dituzte Baztanera hurbiltzen ahal diren enpresa ekimen guztiak kontutan hartu behar direla eta Magnako egoitzan parte hartu duten hiru bileretan bere jarrera beti aktibitatea ezartzearen aldekoa izan da eta «horretarako eman zitzaion Magnako ordezkariari proiektua aitzina eraman ahal izateko jarraitu beharreko ibilbide orri bat». Ibilbide orri horren lehen urratsa, udalean proiektua zen. Ondotik, Baztanen herri galdeketa bat egin beharko litzateke eta akitzeko, galdeketa-aren emaitza Batzar Orokorriari aurkeztu beharko litzaioke.

Egun, Udalean ez da zentzu honetako inolako proiekturik erregistratu, eta Baztango Ezkerraren erranetan «enpresa uzkur ageri da baztandarrei galdetzeko orduan». Honengatik guztiagatik EMOT onartu zen, proiektu hau kanpoan gelditu zelarik.

Baztango Ezkerraren haridurarako, «Batzar Orokorren mezperetan, gure udal ordezkariak Garapen Elkarteko kide batzuen bisita izan zuten, lantokian eta etxean. Kide hauekin batera Magnako ordezkari bat ere zegoen. Helburua Batzar Orokorra boikoteatzea zelarik».



ARGAZIAK: IDOIA MUGIKA

## Sakabanaketaren aurka paxakan eta frontenisean

Euskal presoek sakanabaketaren kontrako Pilotakadaz Pilotakada ekimenaren barne, paxakan eta frontenisean aritu ziren maiatzaren 25ean Iruritan. Paxakan sei lagun aritu ziren: Iñaki Etxandi, Gorka Urtasun, Egoitz Prim, Aritz Alunda, Jagoba Ramos eta Xabi Barberena. Frontenisean, berriz, zortzi lagunek jokatu zuten: Xotero eta Eki Etxandi, Ibai Irungarai eta Kotteren aurka aritu ziren eta Itziar Torres eta Oinatz Jaunsarats, Mikel Unanua eta Santi Garmendiaren kontra.

## BAZTANGO GARAPEN ELKARTEAREN ERANTZUNA

Baztango Garapenerako Elkartea, bere aldetik adierazi du «Ezkerraren salaketa faltsuek ez dituzte gure lan metodologia eta helburuak aldaraziko, hau da baztandarrendako lanpostuak sortzea eta aurrerapen ekonomikoa bultzatzea».

Baztango Ezkerratik udal ordezkarien «ehizian» ibili zirela salatuta koetako aunitz talde horren botuemaileak direla eta beraiei esker dardel bi zinegotziak dau den lekuan ere gogoratu dute Garapenerako Elkartetik. Harrobia bideragarria izateko bide orriaren baitan herri galdeketa egitea Baztango Ezkerraren «asmakizuna» dela ere erran dute, «errealitatearekin zehazirik ez duena», lehenago inoiz ez baita horrelako galdeketa egin Baztanen negozio bat irekitzeko edo harrobi bat ustiatzeko.

EMOT onartu aitzinako egunean, Ezkerra-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Anizko etxola akitua

Hilabete parrasta batean aniztar andana bat auzolanean aritu dira herriko gauzak uzteko etxola egin. Maiatzaren 24a izan zen auzolanean azken eguna. Ilunabarrean auzolanean parte hartu duten herriarrak pintterdia izan zuten Mendiarte kultur elkartean, pintterdia eta bizkar besta biak batera, dagoeneko akitua baita etxola.

ko zinegotziek Baztango Garapen Elkarteari eskatu omen zioten Erdizko meategi proiektuari buruzko dokumentazioa ematea eta horixe omen zen zuzendaritza batzordekoen asmoa, «baina ez zituzten paperak hartu nahi izan». Batzar Orokorra boikoteatzeko saiakerari dagokionez, gezu-

rra dela diote Garapen Elkartetik, «elkarte honetako inor ez baitzen plenoan izan».

Akitzeko, azalpenen ondotik, Ezkerrako kideekin ez dutela minutu bat gehiago galduko diote Baztango Garapen Elkartekoek, «ez dutelako lan aukerak erakitzeko laguntzen, suntsitzen baizik».

## BAZTAN

KIROLA → EKAINAREN 22AN

# Herriz herri zeharkaldia prestatu dute Mendigoizaleek

38 kilometrokoa, Almandoztik Arizkunera

## TTIPI-TTAPA

laz bezala, aurten ere Baztango Mendigoizaleak taldeak bere denboraldia bukatzeko herriz herriko itzulia antolatu du, Baztandarren Biltzarreko lagunekin batera. Ekainaren 22an egingen da, igande goizeko 6:30ean abiatuta Baztanesatik. Almandozen hasi eta Arizkun bukatuko dute, 38 kilometro egin ondotik. De-

na den, aukera izanen da edozein herritan ibilaldian sartu eta ateratzeko. laz ez bezala, aurten hameketakoa norberak eraman beharko du. Zati bat egin nahi dutenendako, hona hemen ibilaldia herrietatik pasako den ordutegia: Almandoz (7:00), Berroeta (7:37), Aniz (8:05), Ziga (8:36), Oronoz (9:40), Arraioz (10:35), Irurita (11:05), Gartzain (11:50), Lekaroz (12:15), Elizondoko (13:00), Elbete (13:10), Azpilkueta (15:05), Amaur (16:10), Erratzu (17:00), Arizkun (17:40).

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 14AN

# Ikasturteko hondar eguna Amaiurren eginen dute Solasklagunek

Egun osoko egitaraua prestatu dute: ikastaro, bazkari, bisita eta talo jatea

## TTIPI-TTAPA

Ikasturteari agurra emateko egun osoko egitaraua antolatu dute Solasklagunek Amaiurren larunbat honetarako. Goizez, 10:00etatik 14:00etara Hika ikasta-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleak ortzeguneko azokan

Elizondoko Lanbide Eskolako HLKP Administratibo eta HLKP Egokituko ikasleek Elizondoko maiatzaren 22an, ortzegunero burutzen den Merkatu-Azokan parte hartu zuten. Ekimen hau, EJE Proiektuaren barnean (Gazte Enpresa Hezitzailea), eta hirugarren ebaluaketan burutzen den jardura bat gehiago da. Aitzinetik, Gazteideia Kooperatiba eratzen jardun dute ikasleek, baita hornitzailer eta produktu errealeak saltzeko bilatzen, hau da, finantziarioa, eta enpresaren kudeaketarekin zerikusia duen oro prestatzen. Proiektua Astuariastik gidatzen dute, bertan kooperatiba guztiak elkartuak baitaude. Salerosketak aurrera eramateko, Madrilgo enpresa bat izan dute bazkide Elizondokoek, *The sweet pastels* izenekoa. Azken jardura honek, eskolako geletatik merkatu erreala ateratzea suposatzen du eta Elizondoko ikasleak fin-fin ibili ziren.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Elizondoko eskolako 4-5 urteko haurrak kanpaldian

Elizondoko eskolako Haur Hezkuntzako haurrak komunikabideak lantzen ari direnez, egin berri duten kanpaldiari buruz berri bat idaztea pentsatu dute Ttipi-Ttapan argitaratzeko: «Elizondoko eskolako 4 eta 5 urteko haurrak gara. Aurten gure lehenengo kanpaldia egin dugu Erratzun eta gaua bertan pasatu dugu, beste gauzen artean, Xorroxin eta bertako eskola bisitatu ditugu» diote.

roa izanen dute. 14:30ean bazkaria. Menuan, Gernikako piperrak eta pipermin frijituak txistorrarekin, entsalada sorpresa, karrilerak menestran eta arroz-esnea eta kafea izanen dute.

Arratsaldean bisita gidatua egingen dute Amaurko herri eta monolitara, Jon Jauregi Solasklaguna gidari dutela. Ondotik, talo jatea dute Amaurko erroten. Izen ematea Solasklagu-

naren Txokoan, 610 920673 telefonoan edo [solaslaguna@topagunea.org](mailto:solaslaguna@topagunea.org) helbide elektronikokoan egin daiteke. Informazio gehiago: [www.solaslaguna.blogspot.com](http://www.solaslaguna.blogspot.com)



KULTURA → EKAINAREN 3AN DONOSTIAN

# Hirugarren liburua aurkeztu du Hasier Larretxea arraioztarrak

Erein argialetxearen eskutik argitara eman du 'Larremotzetik'

## TTIPI-TTAPA

Hasier Larretxea arraioztarrak bere hirugarren liburua aurkeztu zuen ekainaren 3an Donostian. *Larremotzetik*, sentsibilitate mindu baten autobiografia. «Aitak egurrarekin eratzen dituen irudi eta formak hitzekin eratzen saiatu naiz», dio egileak.

*Azken bala* eta *Atakak* poesia-liburuen ondotik, *Larremotzetik* liburuaren narratiba edo prosazkoa da, baina «poesiatik ere edaten duena». Inguru ederrean jaiotzea egokitu zitzaion

Hasierri. Begientzat ederra bezain pertsona sentsibleentzat gordina den inguru batean. Bere hitzak berreskuratuz, «baso hertsietan aita eta osaba aizkolariekin galdu izan naiz. Aizkorakadaren oihartzuna, adar arteko iluntasunaren erreflexua zen».

Hasierren izaerarako, latza zen herri giroko gordintasun hura. Distantzia behar zuen. Distantzia fisikoa aurrena. Madrilera joan zen bizitzera. Eta literatura hartu zuen sendagai: «Landa ingurunean, salbu mantendu ninduen bular-oskola zen literatura».

Larretxeak eskerrak eman nahi izan zizkion Pello San Millan argazkilaritari, azaleko argazkia berea baita.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hasier Larretxea, liburu berriarekin.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

## Erronka ikusgarria gainditu zuen Guillermo Etxenikek Iruritan

Guillermo Etxenike Iruritako gazteak erronka gogorra osatu zuen maiatzaren 30ean. Zigako gainetik Saioara (1.418 metro) 46 kiloko zamarekin igo zen, hotsari, euriari eta haizeari aurre eginez; handik Iruritako plazara jautsi eta 100 kiloko harri zilindrikoari hiru altxaldi eman eta Andoni Irigoien bikote zuela, arparenarekin 20 ebaketa eman kanaerdiko enborrari. Sei ordu baino guttiagotan egitea zuen erronka eta azkenean, 19 minutu soberan izan zituen. Aitzinetik sobera iragarri gabea bazegoen ere, Iruritako plaza betetzen zuen jendetzak txalo zaparrada eskaini zion herriko gazteari apustua burutzerakoan.


KULTURA → EKAINAREN 19RA BITARTE ERAKUSKETA ARIZKUNENEAN

## Kepa Arizmendi gogoratu dute bere heriotzaren 5. urteurrenean

### TTIPI-TTAPA

Kepa Arizmendi Bereau hil zela bost urte bete dira ekainaren 8an.

Bere ibilbidea gogoratzeko zenbait ekitaldi egin dituzte asteburu honetan senide eta lagunek. Horrekin batean Elizondoko margolariaren omenez egindako *Kepa Arizmendi Bereau-Baztan* liburuaren aurkezpena egin du Baztan Batzen lan taldeak eta bere margolanen erakusketari inauguratu dute Arizkunenean. Ekaina-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kepa Arizmendi 2009an hil zen Baionan.

ren 29 artio ikusgai dira izanen bere lanak. Hain zuzen, Baztan Ba-

tzen taldea sortu dute Kepa Arizmendiren lagun eta senide batzuk, Elizondon 1958an sortu eta Baionan 2009an hil zen margolari honen lana eta ezohiko ibilbidea gogoratu nahian. Ekainaren 7an bertze hainbat ekitaldi ere egin ziren: rugby partida jokatuz Lekarozen. plaka paratu zuten bere sortetxean eta ondorengo triki-poteoa egin zuten. Hainbat lagun bildu ziren Antxitonea trinketean egindako bazkarian ere.

## URDAZUBI

AZPIEGITURAK → 2014 ETA 2015EAN

# Antzinako aroztegia berrituko dute

50.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak

**Iñigo IMAZ**

Apirilaren 25ean egindako udal batzarrean hainbat erabaki hartu zituzten. Batetik, Antzinako aroztegia berritzeko lanak onartu ziren, horretarako 50.000 euroko diru-laguntza jaso delarik. Lanak 2014 eta 2015 urte bitartean egingo dira. Beheko solairuan turismo bulegoa eta lehenengo solairu-

an erabilera anitzeko areto bat paratuko da. Urtxumek elurtegia proiektu berean sartzea eskatu zuen.

Herrigunean eraikiko diren 6 etxebizitzaren xehetasuneko ikerketaren nahiz birparzelazio eta urbanizazio proiektuaren onarpena bozkatu zen. Batzar horretan ere, herriko zenbait bide konpontzeko obrak onartu ziren eta herriko argiztapen-sistema osatzeko lanak burutuko dira Larraintako Aiusunea, Mihura, Ola-



UTZITAKO ARGAZKIA

Legazpiko Burdinola elkarteko bisitariak Urdazubín.

bidea eta Organbiden; Leorlasko Gantxenean; Landibar beheko Menta, Lauanenea, Gaztanbide eta Usaldean.

Maiatzeko batzarrean, berriz, hainbat puntu onartu ziren, tartean Marmoles Baztan enpresaren aktibitateei buruzko informazio-eskaera luzatuko zaie Nafarroako Gobernuari eta beste administrazio publikoei.

### Zauritua Iruñera

Maiatzaren 20an Sasterreneako Martin Jose Barrenetxeak hankan zauri larria egin zuen etxean lanean ari zela. Jose Migel Labaien eta Peio Etxeberria bizilagunek eta Pablo Olaizola koinatua lehen laguntza eman zioten, medikua eta herizaina iritsi bitartean. Suhiltzaileak ere hurbildu ziren eta elikoptero medikalizatuari esker Iruñera

### GIZARTEA

Legazpiko Burdinola Elkartearen bisita

**Juana Mari SAIZAR**

Legazpiko Burdinola Elkarteko kideen bisita izan genuen Urdazubín maiatzaren 24an. Gipuzkoako Urola Garaiko burdingintzaren historia berreskuratzeko lanetan dihardute azken 20 urteetan eta herrietako ondare historikoa aztertu eta bisitatzea maite dute. Urdazubín altxor aunitz ditugunez, klaustroa, museoa, errota eta Ikaburuako kobak bisitatu zituzten lehenik, eta Ikaburuako jabetxean bazkaldu ondoren, Ainhoara joan ziren.

## ZUGARRAMURDI

KULTURA → MAIATZAREN 24AN

# Donostiako Olatu Talka herriraino ailegatu da

Beñardo Goietzek eta Morauk kantaldia eskaini zuten museoko aretoan

**Margari eta Koro**

Donostia "Hiri Kulturala" izendatu ondotik, "Olatu talka" izeneko hainbat ekitaldi antolatzen dituzte urtero Euskal Herrian zehar, eta aurtengo horietako bat Zugarramurdin egin zuten gan den maiatzaren



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gure esku dago Dantxarinean

Ekainaren 8an egin zen "Gure esku dago" ekimenaren giza-katea, baina aste bat lehenago, maiatzaren 31n hainbat tokitan aitzinatu zen giza-kate hori. Eta toki hoietako bat Dantxarinea izan zen. Hantxe elkartu ziren Xareta eta inguruko herrietako ehun bat lagun, eguerdiko 12:00tan, eta eskuak elkar harturik, Nafarroa eta Lapurdiko bi aldeetara hedatu zuten giza-katea.

24an, Museoko aretoan. Bertan bi kantariari-

tu ziren: Beñardo Goietxe eta Morau. Ask

emanaldi goxoa eskaini zuten.



GIZARTEA → POLITIKA

# Fronte Nazionale bigarren indar bozkatuena izan zen Europako hauteskundeetan

UMP eskuindarrak 437 boz eskuratu zituen eta Le Penen alderdiak 297

Franck DOLOSOR

Abstentzio haundiak %55,85 eta Frente Nazionalaren gorakadak markatu zituzten Europako hauteskundeak Senperen ere. Marine Le Penen alderdia bigarren indarra bilakatu zen 297 bozekin (%15,71) UMPko eskuindarren ondotik, 437 bozekin (%23,12). Eskuineko bi indar hauen ondotik sailkatu ziren Eusko Alderdi Jeltzalea 277 bozekin (%14,66),

ekologistak 273 boz (%14,44) eta sozialistak 140 boz (%7,4). Ezker abertzaleak ez zuen hautagaitzarik aurkeztu. Hurbiletik begiratzuz, azpimarratzekoa da FNk 464 boz ardiesi zituela 2012ko presidentzialetan eta beraz 167 boz galdu dituela bi urtez. Sozialistek abantzu 700 boz galdu dituzte eta eskuindarrek 451. Jeltzaleek emaitzak hobetu dituzte aurtengo 42 boz baitzituzten 2012ko hauteskunde legegileetan eta 87 2009ko Europako hauteskundeetan.

**Ustezko erasotzailea preso**

35 urteko emazte bat preso sartu dute 7 ur-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

## Kultur Etxearen eraikitze lanak aintzinatzen ari dira

Larreko kultur etxearen eraikitze lanak aintzinatzen ari dira eta estrena udazkenean egingen da.

teko alaba itotzen saiatu zelakoan Senpereko oihanean. Konortetik gabe atxeman zuten neskakak salatu zuen amak ito nahi izan zuela soka batekin eta medikuek bere itotze saiakera berretsi dute. Neskatxaren gurasoak berezi ziren, ama Aturben bizi da Pirineo Garaian eta aita Baionan.

Ezohiko gertakariak harridura eta tristura haundia sortu du gure herrian zorionez ez baita maiz entzuten hola-  
korik.

**Herriko bestak laster**

Jondoni Petrikari bestak ate joka ditugu

ekainaren 27tik uztailaren lehenerat ospatuko direlako. Aurtengo, zikiroa, senpertarren ibilaldia oinez, pilota partidak, ahate jokoa eta musika emanaldiak izanen dira, bertzeak bertze Kriolinak, Herritmo, Amarra, Patxi eta Konpainia, Ekintza eta Enbata taldeekin. Uztailaren lehen egunean asteartearekin herriko zon-bait saltzailek animazioak eta merke saltzea apailatuko dituzte, pin-txo, mutxiko eta musika emanaldiekin.

**Parropiaren besta hilaren 15ean**

Kermeza, parropiaren alde ospatzen den

urteroko besta ekainaren 15ean ospatuko da aurtengo. Goizeko meza-  
ren ondotik, herritarren bazkaria eta afaria egingen dira Gantxikin. 16:30ean San Josep eskolako haurren urte hon-  
darreko ikusgarria eskainiko da eta 18:00etan gazteen Flash Moba.

**Erroten eguna igandean**

Akerreta Plazako errotaren ateak maiz zabalik daude eta ekainaren 15ean arto bihia hiri-  
n bilakatzen ikusten ahal-  
ko da. Ondotik, taloak dastatzen ahal-  
ko dira goizeko 9etatik egu-  
erdi arte eta arratsalde 14etatik 19:00ak arte.

**JATETKEA-ERBETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarinetatik  
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com

**HARPIDETU!**  
eta hamabostero aldizkaria  
zure etxean hartuko duzu

**TARIFAK**

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Baztan, Urdazubi eta  
Malerreka 34€
- Leitza 17€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 59,50€

Koskontako bidea, 7 - 1 31770 LESAKA  
T. 948 635 458 F. 948 635 457  
info@ttipi.net | www.ttipi.net

## SARA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 15EAN

# Xareta Eguna herrian ospatuko dute igandean

Goizean goizik  
Sarako  
lezeetatik  
Zugarramurdira  
joan etorria  
egiteko martxa  
proposatu dute

**Joana GERENDIAIN**

Aurten Xareta eguna Saran ospatuko da ekainaren 15ean, igandea-rekin. Goizean, 08:30ean martxa bat abiatuko da Sarako lezeetatik Zugarramurdira eta itzule-ra ere oinez egingen dute. 10:30ean Sarako lezeen bisita bat proposatua da, 10:30ean Sarako gozogileek irakatsiko dute nola egiten den euskal pastiza.

11:00etan pilota partida jokatu da, ondotik Zazpiak Bat taldeak dantza ikusgarri bat emanen du. Eguerditan "Saranga" eta Txalapartak alaituriko zintzur bustitze bat izanen da eta ondotik Sarako ekoizleek prestaturiko bazkari bat. Arratsaldeko 4etan berriz ere lezeen bisita bat proposatua da. Egun osoan zehar, 11etatik arratsaldeko 5ak arte, jokoak izanen dira haurrentzat. Ekitaldi guztiak urrikeri izanen dira.

## Kantaldiak

Ekainaren 18an, astelehenez, Donibane Lohitzuneko Goraki abesbatzak kantaldi bat emanen du elizan. Abesbatza 40 gizon-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sarak lehen aldiz hartuko du Xareta Eguna. Argazkia 2012koa da, Urdazubín.

emaztez osatua da eta Euskal Herriko kantu herrikoiak eta elizako kanta batzuk kantatzen dituzte. Sartzea 10 eurotan, kantaldia gaueko 9etan hasiko da.

Ekainaren 25ean, Hazparneko Mendixola abesbatzak kantaldi bat emanen du elizan. Abesbatza honek ere kantu herrikoiak kantatzen ditu. Sartzea 7 eurotan izanen da eta kantaldia gaueko 9etan hasiko da.

## Sara VTT

Ekainaren 22an, Sara VTT ibilaldiaren 13. edizioa egingen da Saran. Bi ibilaldi proposatuak dira: lehena 20 kmkoa eta bigarrena 35 kmkoa. Adingabeak ibilaldia egiten ahal dute baina lagunduak izan beharko dira. Kaskoa beharrezkoa da eta baita medikuaren agiri edo lizentzia ere. Izen emaita egunean berean egiten da, parte hartzea 5 eurokoa izanen da. Ibi-

laldia goizeko 9etan abiatuko da plazatik.

## Esku baloia

Esku baloiko senior eta 18 urtez azpiko ekipek finalak jokatu dituzte maiatzaren 23 eta 25ean. Seniorrek Lucq de Béarn-eko ekiparen kontra galdu dute 21-15. 18 urtez azpikoek ere galdu dute 25-22 Atarratzaren kontra. Azpimarratzekoa da bi ekipek sasoin ederra eraman dutela.

GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

— TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA —

— LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK —





**Martatzak**  
ZURE OSPAKIZUNETARAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA  
♥ Soinekoak  
♥ Ilerako apaingarriak  
♥ Poltsak  
♥ Bisuteria  
Bidasoa, 12 • BERA  
948 631 425

## EZKONTZAK

**Unai Samso Galarza** eta **Josune Lukanbio Jimenez**, Oiartzun eta Goizuetakoa, maiatzaren 31n.

**Arkaitz Mindegia Baleztena** eta **Miren Goñi Torres**, Aurtitz eta Oronozkoa, maiatzaren 31n.

**Marcos Landa Arenal** eta **Estibaliz Iparragirre Madariaga**, Ibarra eta Arantzakoa, maiatzaren 23an.

**Jabi Zelaieta Salaberri** eta **Paula Zunzarren Bañares**, Oronozkoa eta Doneztebekoa, maiatzaren 17an Legasan.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



**kukuka**  
Zerito sarritsuak epa dakusag!!  
Zazpigarate, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

## SORTZEAK

**Aitana Iturbide Cubero**, Gaztelukoa, maiatzaren 17an.

